

Uztailaren 3an izendatuko dira alkate berriak

Uste baino luzeagoa gertatu zen hainbat herritan hauteskunde-gaua. Izan ere, hautesmahaietan hiru edo lau boto desberdinen kontaketa egin beharrak, bertze alditan baino gehiago luzatu baitu prozesu guztia aldi honetan. Hori alde bateatik. Eta bertzetik, batez ere Bera eta Leizta bezalako herrietan, eta baita gehiagotan ere, jakinmin berezia zegoen udalbatzar berriaren osaketa argitzeko. Herri batzutan azkenekoan bainotalde gehiago aurkeztuak zirelako, eta bertze kasutan, talde gutxiago.

Inkognita horiek denak argituak dira, eta orain, hurrengo pausua, parlamentu eta udalbatzar berrien osaketa da. Errekurtsorik ez baldin bada, eta Hauteskunde Legeak zehaztenduenaz, uztailaren 3an

jabetuko dira beren karguetaz alkate-zinegotzi berriak. Errekurtsoren bat tramitatu den kasuetan, berriz, udalbatzar berriak uztailaren 23an osatuko dira.

Gainerakoan, Europaeta Nafarroako Parlamentua, eta baita udal eta kontzejuetako botuen emaitzak ere, aldizkari honetan bertan daude denak bilduak, aurreko hauteskundeetako botuen konparazioak eta guzi.

MAHAINGURU ETA SAIO BEREZIAK

Aldizkari, irrati eta telebistan mahainguru eta saio bereziak eskaini zitzaizkien udal hautagaiei

Jakinminik haundiena Bera eta Leitzako udal hauteskundeek sortua zuten

ttipi-ttapa
telebista

TTIPI-TTAPA TELEBISTAK URTEA BETE DU

Ekainare 15ean abiatu zenetik urte bat igaro da. Denbora honetan nabarmen hazi eta indartu da hasierako proiektua. Gaur egun, Bortziriak, Bertizarana eta Malerrekan ikusten da, denetara 17 herritan. Ale honetan atzera begiratu eta egunik seinalatuenekin kronologia tiki bat egin, eta bidenabar, bitarte honetan gertatu diren anekdota xelebreenak kontatu ditugu.

3-6

9



PITTI

MINIESKABAZIOAK



**ONGI PASA
SAN PEDROAK!**

Mobila. 616 513 497 - DONEZTEBE



Almaco Baztan

ETXEGINTZA ETA
SANEAMENDU
MATERIALAK

© 948 580 104 / 948 580 366
ELIZONDO

↓ Zeramikak



↓ Tximeneak



↓ Velux-ak



↓ Erremintak



Hauteskundeen emaitzak

Talde bakoitzaren botu kopuruak eta konparazioak lehen izandakoekin

Udalak, kontzejuak, Nafarroako Parlamentua eta Europako Parlamentua

HAUTAGAI BAKAREKO UDALAK

BEINTZA-LABAIEN Alkatea: Fco. Jabier BERTIZ
Herriko Taldea / 7 Hautetsi (98 botu)

EZKURRA Alkatea: Martin GASTEARENA
Idoia / 7 Hautetsi (----- botu)

GOIZUETA Alkatea: M^o Pilar UNTXALO
Euskal Herritarrok / 7 Hautetsi (419 botu)

ZUBIETA Alkatea: Benantzio BALEZTENA
Euskal Herritarrok / 7 Hautetsi (135 botu)

ARANO, NARBARTE eta OITZEN
EZ DUTÉ UDAL HAUTESKUNDERIK IZAN

UDAL HAUTESKUNDEAK HERRIZ HERRI (99/VI/13)

ARANTZA
7 HAUTETSI

Alkategai bozkatuena
Joxe Ramon AMOROS
(Euskal Herritarrok)



	1995	1999
EH	-	5 (339 botu)
EAJ-EA	-	2 (131 botu)
AA	4 (315 botu)	-
PNV	3 (205 botu)	-

ARESO
7 HAUTETSI

Alkategai bozkatuena
Josefa Antonia ONSALO
(Grupo Indep. Areso)



	1995	1999
GIA	4 (122 botu)	4 (115 botu)
EH	-	3 (113 botu*)
HB	3 (87 botu)	-

*EHk bi botu gehiago errekurritu ditu. Onartuz gero berdinketa izanen da.

BAZTAN
13 HAUTETSI

Alkategai bozkatuena
Patxiku OIARTZABAL
(Eusko Alkartasuna)



	1995	1999
EA	6 (1783 botu)	6 (1832 botu)
UPN	5 (1616 botu)	5 (1748 botu)
EH	-	2 (882 botu)
HB	1 (492 botu)	-
AB	1 (439 botu)	-

BERA
11 HAUTETSI

Alkategai bozkatuena
JOSU GOIA
(Euskal Herritarrok)



	1995	1999
EH	-	5 (840 botu)
EA	3 (552 botu)	4 (693 botu)
PNV	-	2 (354 botu)
HA	6 (906 botu)	-
HB	2 (403 botu)	-

BERTIZARAN.
7 HAUTETSI

Alkategai bozkatuena
Andres ETXENIKE
(BE)



	1995	1999
BE	-	4 (214 botu)
AEB	4 (189 botu)	3 (188 botu)
EA	3 (164 botu)	-

DONAMARIA
7 HAUTETSI

Alkategai bozkatuena
Ricardo SAGASETA
(Herrirerengatik)



	1995	1999
H	4 (169 botu)	4 (171 botu)
HT	3 (115 botu)	3 (119 botu)

DONEZTEBE
9 HAUTETSI


Alkategai bozkatuena
Miguel SAN MIGUEL
(Eusko Alkartasuna)



	1995	1999
EA	6 (502 botu)	7 (575 botu)
EH	-	2 (146 botu)
UD	2 (165 botu)	-
BZ	1 (87 botu)	-
HB	0 (66 botu)	-

ETXALAR
7 HAUTETSI

Alkategai bozkatuena
Miguel Mari IRIGOIEN
(Herri Taldea)



	1995	1999
HT	4 (286 botu)	5 (299 botu)
EA	0 (56 botu)	2 (154 botu)
UPN	3 (176 botu)	-

IGANTZI
7 HAUTETSI

Alkategai bozkatuena
Eduardo MIGELENA
(EAJ-EA)



	1995	1999
EAJ-EA	-	4 (215 botu)
HT	5 (276 botu)	3 (203 botu)
PNV	2 (154 botu)	-

ITUREN
7 HAUTETSI

Alkategai bozkatuena
Jose Mari GOROSTERRAZU
(Eusko Alkartasuna)



	1995	1999
EA	5 (222 botu)	5 (197 botu)
EH	-	2 (115 botu)
HB	2 (119 botu)	-

LEITZA
11 HAUTETSI

Alkategai bozkatuena
Tomas AZPIROZ
(Euskal Herritarrok)



	1995	1999
EH	-	6 (894 botu)
HB	4 (653 botu)	-
EA	4 (594 botu)	3 (486 botu)
UPN	-	2 (410 botu)
UL	3 (585 botu)	-

LESAKA
11 HAUTETSI

Alkategai bozkatuena
Jose Luis ETXEGARAI
(EAJ-EA)



	1995	1999
EAJ-EA	-	7 (995 botu)
EH	-	4 (556 botu)
PNV	7 (958 botu)	-
HB	2 (381 botu)	-
EA	2 (367 botu)	-

SUNBILLA
7 HAUTETSI

Alkategai bozkatuena
Jose Mari HERNANDORENA
(Eusko Alkartasuna)



	1995	1999
EA	5 (272 botu)	5 (285 botu)
EH	-	2 (110 botu)
HB	2 (100 botu)	-

URDAZUBI
7 HAUTETSI

Alkategai bozkatuena
Andres DIHARASARRI
(Urruume)






	1995	1999
U	-	4 (161 botu)
IDU	7 (180 botu)	3 (109 botu)

ZERRENDA IREKIAK (5 HAUTETSI)

ELGORRIAGA	Bostorraz (x), EH(x)	Alkatea: Jose Migel Galarregi (B)
ERATSUN	AE (5)	Alkatea: Martin Mariezkurrena
LEGASA	EA (5)	Alkatea: Jose Javier Perez
OIEREGI	AEO (5)	Alkatea: Jose Mari Galarregi
SALDIAS	CIS (5), EH (0)	Alkatea: Pedro Urrutia (CIS)
URROTZ	HA (5)	Alkatea: Ignacio Urroz (HA)
ZUGARRAMURDI	A (5), EH (0)	Alkatea: Jesus Agerre (A)

NAFARROAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEAK (99/VI/13)



Oharra:

- EA-EAJ: 1991tik 1996ra grisean dauden datuak, bi alderdiek lortutako botuen batuketa da.
- EH: 1991tik 1996ra grisean dauden datuak, HBk lortutako botuak dira.


BAZTANALDEA		
	1999	1995
UPN	1979	1666
EA-EAJ	1355	1323
EH	973	575

BORTZIRIAK		
	1999	1995
EH	1753	1138
EA-EAJ	1529	1637
UPN	1017	877


LEITZALDEA		
	1999	1995
EH	1359	1007
EA-EAJ	682	604
UPN	335	413

MALERREKA		
	1999	1995
EA-EAJ	990	1183
UPN	791	651
EH	777	533

ALDERDIRIK BOZKATUENAK ESKUALDEKA



ESKUALDEAN ALDERDI BAKOITZAK LORTU DITUEN EMAITZAK



Zentzua	Parteh.	CONVERGENCIA		UPN		EH		PSN		UPN	
		1999	1995	1999	1995	1999	1995	1999	1995	1999	1995
ARANO	148 / 75	6	12	17	20	39	35	3	0	10	10
ARANTZA	634 / 489	11	54	114	229	276	163	10	26	53	46
ARESO	266 / 236	46	93	34	16	91	65	13	2	2	34
BAZTAN	7028 / 4569	237	611	1280	1289	893	531	205	349	1782	1623
BEINTZA-LABAIEN	276 / 136	21	15	8	23	24	5	10	10	68	52
BERA	3003 / 2054	141	310	491	470	696	381	127	241	467	344
BERTIZARANA	566 / 257	45	85	60	145	46	42	6	67	92	52
DONAMARIA	340 / 285	21	46	97	100	59	42	9	19	83	60
DONEZTEBE	1060 / 835	54	181	324	343	135	80	55	53	215	136
ELGORRIAGA	178 / 144	6	23	33	18	47	32	6	12	45	14
ERATSUN	178 / 115	17	14	31	58	23	7	0	4	38	5
ETXALAR	704 / 448	28	53	136	79	155	142	17	27	112	182
EZKURRA	223 / 104	13	39	16	16	46	16	3	22	24	12
GOIZUETA	840 / 527	22	47	106	133	375	314	6	10	18	20
IGANTZI	517 / 423	24	74	151	121	114	80	13	40	101	95
ITUREN	413 / 313	11	23	141	159	124	106	4	14	33	30
LEITZA	2559 / 1828	37	287	534	451	857	628	48	81	271	349
LESAKA	2393 / 1555	55	187	637	738	512	372	67	104	95	210
OITZ	143 / 79	9	10	27	43	25	24	3	1	12	7
SALDIAS	137 / 95	6	16	28	42	35	21	1	3	21	12
SUNBILLA	599 / 428	20	62	191	176	99	77	9	29	85	49
URDAZUBI	366 / 249	45	78	60	28	46	20	6	14	92	8
URROTZ	174 / 98	10	23	9	19	20	17	0	5	54	36
ZUBIETA	305 / 168	3	14	25	41	94	64	9	16	21	17
ZUGARRAMURDI	243 / 164	3	26	15	6	34	24	7	14	105	35

(¹) 1995eko hauteskundeetan EAk eta EAJk lortutako emaitzak.


(²) 1995eko hauteskundeetan HBk lortutako emaitzak.

ALDERDIK BOZKATUENAK HERRIZ HERRI (99/VI/13)



EUOPAR PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEAK (99/VI/13)

ESKUALDEAN ALDERDI BAKOITZAK LORTU DITUEN EMAITZAK



	Zentsoa		PP		EA-EAJ		EH		PSOE		IU	
	Parteh.		1999	1994	1999	1994	1999	1994	1999	1994	1999	1994
ARANO	148	79	10	18	20	16	42	39	0	3	1	1
ARANTZA	634	489	60	57	116	140	272	111	19	27	3	4
ARESO	266	205	46	37	34	19	91	50	13	7	2	2
BAZTAN	7027	4510	1753	1060	1306	601	903	443	298	429	29	114
BEINTZA-LABAIEN	276	133	71	67	5	25	22	14	25	20	2	7
BERA	3003	1869	448	339	510	276	686	334	183	260	42	84
BERTIZARANA	566	384	124	76	129	95	85	43	40	53	6	4
DONAMARIA	340	275	71	52	105	62	60	36	20	16	0	7
DONEZTEBE	1060	809	232	160	317	192	129	60	67	79	14	19
ELGORRIAGA	178	144	36	21	36	29	46	22	9	16	6	2
ERATSUN	178	92	27	26	25	34	20	6	3	3	4	3
ETXALAR	703	486	136	94	125	70	159	110	21	38	1	10
EZKURRA	223	102	33	42	3	19	49	16	5	24	1	2
GOIZUETA	840	551	28	31	108	97	385	355	5	16	3	1
IGANTZI	517	426	105	67	144	77	118	58	26	46	6	12
ITUREN	413	321	34	20	145	95	125	93	6	22	1	3
LEITZA	2559	1810	367	239	451	343	857	521	80	85	4	47
LESAKA	2393	1623	272	211	633	510	514	313	109	142	17	68
OITZ	143	79	19	6	30	37	27	25	2	1	0	3
SALDIAS	137	92	17	12	28	26	37	17	2	4	0	0
SUNBILLA	599	425	93	56	202	135	84	51	13	49	3	4
URDAZUBI	366	270	114	82	67	27	49	19	16	24	3	4
URROTZ	174	106	51	44	23	16	20	15	1	4	0	1
ZUBIETA	305	129	1	16	26	37	93	55	8	13	1	4
ZUGARRAMURDI	243	159	68	35	16	5	31	26	23	10	3	2

(¹) 1994ko hauteskundeetan EA eta EAJ bi zerrenda desberdinetan aurkeztu ziren. Ematen den kopurua bien batuketa da.

(²) 1994ko hauteskundeetan HBk lortutako emaitzak.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

Internet:

http://www.jalgi.com/topagunea/ttppi-ttapa

e-mail:

ttppi-ttapa@topagunea.jalgi.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.
Presidentea: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Iri-goien. **Zuzendaria:** Aitor Aroze-na. **Publizitatea:** Kulturkari, S.L.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Aitor Aroze-na, Asier Gogortza. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Aroze-na, Juana Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri, Martine Goietxe, Frederick Berruet, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Aroze-na, Asier Gogortza.
Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Belarra...
Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leiza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubieta Sarako udalak, Bortziri-etako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria 2.000 Pta.
Iparr Euskal Herria 140 Libera
Europa 3.500 Pta.
Amerika 15.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Hauteskunde ondorengo lehen balorazioak

Eskualde osoan alderdi abertzaleak nagusitu dira udaletxeetan



Jon ABRIL
Bero

Herriz herriko da-tuei erreparatuta, hauteskunde guztietan bezala sorpresarik ez da falta izan ekainaren 13ko hauteskundeetan. Ikusmira handiena Beran zegoen partatua, Herrialde ez aurkeztearekin bertze alderdi bat alkatetzan sartzea baitzekarren. Lehendabizikoz alderdi abertzaleak baino ez dira aurkeztu Beran, eta horien artean aipatzekoa da EHren garai-pena. Horretan, ez bairik gabe, eragina izanen zuen Lizarran-Garaziko akordioak. Botuak bikoiztu ditu udalerako hauteskundeetan, eta igoera ere nabarmena izan da Nafarroako Parlamentuko hauteskundeetan. EAk ere sendo darrai Berako udaletxean, eta gobernatze tenorean ezinbertzeko taldea bilakatu da. Bertze sorpresa nabarietakoak Igan-tzikoa izan da. 12 botuko aldeaz EAJ-EA koalizioak alkatetza eskuratu du. Bortziritako gainerako herrietan aurreikusitakoak gertatu da, guti goiti beiti. Aipagarriak dira, halaber, Areso eta Leitzako kasuak. Leitzan EHk gehiengo osoa izanen du hurrengo lau urteetan. Eskualdean alderdi abertzaleen gehiengo azpimarratzea gelditzen da, udaletxeetako eguneroko jardueran eragina izan behar-ko lukeen datua baita hori, ez bairik gabe.

Abstentzio handiak jendeak gero eta ilusio gutiago duela erakusten du



Koteleto JUANIKORENA
Zubiela

Azken urteetako eboluzioari begira, joera argia da Malerrekako guztian gero eta abstentzio handiagoa dagoela. Gero eta ilusio gutiago du jendeak hauteskundeetan, eta hurrengo lau urteetan ilusio hori berpizteko lan egin behar da. Horrek ere arazo franko sortu ditu zerrendak osatzeko tenorean. Orokorrean herri guztietan izaten dira arazoak zerrendak osatzeko, baina nabarmena da fenomeno hori Malerrekako. Doneztebeko kasua aski argia da. Orain lau urte bortz zerrenda aurkeztu ziren, eta orain bi baino ez dira aurkeztu. EHk ordezkariak lortu du, eta orain arte UPN inguruko alderdiei botua eman dietenek hiru joera hartu izanen dituzte hauteskunde hauetan: EAri botua eman EHri ez ematearren, eta zinegotzirik lor ez dezan; EHri botua eman EAri zigor botu gisa; edota gehienek hartu ote duten bidea: boturik ez ematea, abstentzioa, alegia. Nabarmena da, halaber, talde abertzaleak eta independenteek osatu dituztela alkatetza eta udaletxeetako zerrenda guztiak Malerrekako, baina Nafarroako eta Europako Parlamentuetarako botuen artean bertze alderdiek ere ordezkariak zabala eta pisu nabarmena hartzen dutela aipatu beharra dago ezinbertzean.

Espero dezagun Europar Batasuna etorkizunean herrien Europa bihurtzea



Felipe SARAGUETA
Bero

Europar Batasunean herritarrok zuzenean aukeratu dezakegun erakunde bakarra da Europar Parlamentua. Erran behar da partehartzeko nahiko haundia izandu dela, batzutan gure burutan hain urruti dagoen Europar Batasuna gero eta hurbilago ikusten dugunaren seinale. Hurrengobortz urteetan 3ordezkari abertzale izanen ditugu Parlamentu horretan, Europako Herrien koalizio nazionalistaren aldetik (EA-EAJ-ERC eta Unión Mallorquina)2, Gorka Knorreta Josu Ortuondo, eta EHtik 1 (Koldo Gorostiaga). Honen inguruan, ikusteko dago Europaren eraikuntza norantz joanen den, Estatuon Europarantz edo Herrien Europarantz... Bigarren aukera hau da, dirudienez, etorkizunean gailenduko dena, alemandar Länder, komunitate autonomo eta gainerako Europako erregioen bulkal-diarekin. Dena den, kritikatu behar da Europar Parlamentuak gaur egun duen eskumen eskasia, batez ere Ministro Kontseiluaren eta Europako Kontseiluaren gehiegizko boterearen aldean. Argi dago Estatuon Europar Batasuna Estatuon arteko fenomeno bezala ulertzen dutela. Espero dezagun datozen urteotan erregio ezberdinen nahiak gauzatzeko balio izatea.



ttppi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328+133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak

Martizarrak Baztan ballean?

Azken bolada huntan ibiltzen da gure balletik tipo bat. Orain dela bi urte bizilekua aldatu zuen Lekaroztik, han aski ezaguna zelarik, Orabideko borda batera, zeina gurearen ondoan dagoen. Handik gutxira, bere txakurrek auzokoen zenbait ardi hil eta gero, indibiduo horrek etxearen ondoko erreka bereganatzea erabaki zuen. Hesitu zuen sarrera galerazteko. Ereku komunalean dago, auzokook aspalditik hartzan genuen hantxe. Haren hurrengo erabakia etxea haunditzea izan zen, anexo bat eraikitzea, berriro eremu komunalean. Honaino dena baimendu zaio. Baina, orain dela egun batzuk, etxe bat eraikitzeko lizentziarekin, hasi da eraikitzen, etxeaz a p a r t e - , granja-eskola bat, hau ere lizentziarik gabe. Horrez gainera, lau bide berri ereki ditu eremu komunalean, eta ur biltegi bat ipini du, iturri ondoran. Bere etxetik urrun dagoen pinudian ere, ezagutzen ez ditugun lanak hasi ditu. Eta nahiz eta den-dena jakin, Baztango Udalak ikusiko ez balu bezala egiten du. Zer interes du Udalak legeak ez betetzen uzteko? Auskalo. Hain harrigarria den tipoa ikertuz, aurkitu dugu bera eta emaztea Iruñean kokaturiko elkarte bateko kideak zirela. Elkarte honek salaketa auzintz dauka zorrik ez ordaintzeagatik, ez langileei, ez Iruñeko Udalarri, ez Gizarte Segurantzari, guztira, zenbait milioi pezeta. Baina hori ez da dena. Pixka bat gehiago ikertuz, aurkitu dugu elkarte horrek ez duela aktibitate, eta haren izena eta sekta batena berberak direla. Kasualitate? Ez dugu uste. Dirudenez, Nevada izeneko unibertso batean bizi gara, eta gure alboan planetak Avalon, Sanselon, Portalon eta Esplandon

dira. Hemendik aurrera, Unibertsoaren hiriburua Salvington izango da, Kristo Micaelen eta Unibertsoaren Ama Harrigarria, ezta? Izu bakarra daukagu: balizko granja-eskola sektatik kanpoko jendearentzako burmuin-garbileku bihurtzea. Martizarrak ikusiko al ditugu Alkurruntz mendian lurretatzen?

GUZMÁN PASCUAL VELASCO
LORENA PASCUAL VELASCO



Goizuetan asko hil, gutxi jaio

Orain dela aste batzuk goizuetar batek ondorengo datu sinple bezain kezagarri hau eman zidan: 1998an gure herrian 18 lagun hil dira eta 5 jaio.

Egia esan, ia astebururo Goizuetan izaten naizenez, badakit biztanlegoaren jeitsiera geldiezin dela, baita horren kontrako neurriak hartzan ez dela ere nere uste apalean. Ba, nik, dagoeneko Espainiako meseta aldean oso emaitza onekin aplikatu den proposamen bat luzatuko diot korporazio berriari: ni bezala, aspaldiko urteetan Goizuetatik kanpo bizi den batentzat ere ezaguna da herriak (Udalak) ez duela arazo ekonomiko larririk. Beraz, herrian jaio, erroldatu eta urte kopuru jakin batean bertan bizitzeko baldintzak onartuko lituzketen haurrei (edo gurasoei) dirulaguntza bat ematea Udaletxeak. Esate baterako, lehenengo haurrarentzat 200.000 pta, bigarrenagoatik 400.000, hirugarrenagoatik...

Neurri hauei esker bost haurretik zortzira igoko balitz ere, urtean bi edo hiru milioi pezeta inguru suposatuko luke Udalarrentzat, eta seguraski, hau baino errentabilitate gutxiagoko inbertsioak egi-

OHARRA:

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapak** bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez dituzten iritzirik.*

nen ditu Udalak urtean zehar. Herriaren iraupena da garrantzitsua. *Haurrik gabeko herria herri hil bat da!*

ISMAEL LOIARTE (GOIZUETA)



Euskarazko irakaskuntza

Ukaezinena da aurrerapauso garrantzitsuak eman ditugula euskararen normalizazioan irakaskuntzaren arloan. Begibistakoa da, gero eta guraso gehiago direla beren

seme-alabentzat euskarazko irakaskuntza hautatzen dutenak. Baina ukaezina da, baita ere, hutsune handiak ditugula euskarazko irakaskuntzan.

Lehen hezkuntzak itogin handiak ditu: A ereduak ez du euskalduntzen eta B eredu gehienek ere ez. Nola euskaldunduko dute, D ereduko ikastetxeetan ere Normalizaziorako Plan Integralak edota Euskaraz Bizi bezalako egitasmoak martxan jarri beharra badago eskola hori euskaraz biziko bada. Ereduena, beraz, osoki birplanteatu behar da, Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak A ereduarekin datorekin ikasturterako egin behar duen bezala. Zer esanik ez dago G ereduaz, jakina, ezta Derrigorrezko Hezkuntzaren Ondorengo irakaskuntzan dauzkagun arazo larriez ere, materialaren alde, eta nagusiki irakasle askok ez dakielako euskaraz. Pisuzko gaia gogoetarako, eta ez da kasualitatea sortu berria den GUNEAK eztabaidarako lehenengo gai bezala horixe hautatu izana. Hau guztia kontutan hartuta, EHE, IA, Ikasbatuaz, LAB eta Sortzenek maiatzean zehar eta ekaina bitartean antolatutako Euskal Irakaskuntzaren aldeko nazio ekimenetan parte hartzera gonbidatzen ditugu herritar guztiak, denen artean eraiki dezagun benetako Hezkuntza Sistema Euskalduna.

IKASBATUAZ ELKARTEA



Lanordu gutxiago eta lanpostu gehiago

1999ko maiatzaren 21ean, Lekaroz-Elizondoko BHIIn, egun osoko greba egin genuen bertako langileekin bat eginez, ondorengo gai hauek jorratuz: "Greba hau EAEIn, ELA, LABek sustaturik eta

sindikatu guzkie onarturik, enpleguaren itunarekin sinatzearekin hasita, aparteko orduak, plantilen ordezte eta berritzea, eta AELak eta Zerbitzu Enpresak lantzen dira, baina enpleguaren aldeko borrokan oinarritzakoa den gai bat uzten du airean: lanaldiaren murriztapena.

Datuetan oinarrituz, ikus daiteke baikortasun ofizialik ez dagoela: EAEko langabezi tasa %16,4koa da eta Nafarroakoa %9,6koa. Bestalde, 25 urte azpikoen artean EAEIn 33,7 baldin bada Nafarroa %25,9koa da, eta azkenik, emakumeen arteko langabezia, gizonena baino 2,5 aldiz haundiagoa da EAEIn eta 4 aldiz haundiagoa Nafarroan. Euskal sindikatu-ekaspalditik diote gauza bera: lanaldiaren murrizteari behingoz ekiten ez diogun bitartean langabeziaren arazok ez du inpresabiderik.

Argidago enpresarientzat ez dela arazoa.

35 orduko lanastea kanpainan honen helburu nagusia da. Neurri hau gauzatuko balitz, gutxi gora behera 70.000 lanpostu berriren sorrera lekarke.

Lan baldintzak duintzea: behin-behineko kontratuak finkoetan bihurtzea, behin-behineko kontratuei mugak ezartzea eta sexu arteko bereizketaren aurka neurriak ezartzea.

Honen barruan, oinarritzak errenta norbanakoaren eskubide izan dadila eskatzen dugu, berau eskuratzeko trasteak erraztu eta duindu daitezela. Akitzeko, etxeko lanen zati bat enplegu bihurtu eta emakumei lan merkatuan sarbidea erraztea eskatzen dugu".

Ondorioz, lanpostu gehiago badaude, irakasle gehiago egongo dira, hezkuntz kalitate hobea izanez.

CAROLINA DOMINGUEZ
MIKEL SALABERRI

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Argia 99ko ekainak 11

«Diotenez, Irumen ba omen zen goxotegi bat Baztango arraultzeetan espezializatua. Gaur egun oraindik badago kostaldearekin hartu-eman hori, eta aipatu behar dut gure etxeko espezialidadea, legatza, Pasaiako portutik heldu dela».

Mikel TABERNA "Kapi"

1999ko Tene Lehiaketaren irabazlea. BERA. Argia 99-06-11

«Elgorriagako bainu-etxeak eskualdeko ekonomiari behar duen bulkaldia emanen dio. Gaur egun inguruko langabeziari aurre egiteko modu bakarra da».

Jose Miguel GALARREGI
Diario de Navarra 99-06-11

◆ **Irrati esatari, irakasle, kontzertu antolatzaile, Internet-zale... Nola definitzen duzu zure burua?**

❖ Ogibidez Oronozko maistroa, bertzela "saltsa guziko perrexila" (hori erraten didate).

◆ **«Mila ofizio, benefiziorik ez» erranera egia da?**

❖ Bakoitza bere bidea egiten saiatzen da.

◆ **Xorroxin Irratiaren programarik onena?**

❖ "Karakola segi hola" inongo dudarik gabe.

◆ **Noizko hurrengo Xorroxin kontzertua?**

❖ Ixa-ka (Xorroxin Kontzertuak) siesta luzea hartzen ari da.

◆ **Herriko bestetan Xorroxin omenduko dute. Kontent?**

❖ Entzuleen eguneroko deiak dira omenaldirik hoberena.

◆ **Zer dute faltan eta zer soberan Erratzuko bestek?**

❖ Pertsonalki gauak luzeagoak behar ditut.

◆ **Zer eginen duzu bestetako atseden egunean?**

❖ Zuk ongi erraten duzun bezala atsedena hartu, deskantxatu.

◆ **Patroia bera izanik, San Pedrok irekiko al dizkizu zeruko ateak?**

❖ Ateo xamarra naiz. Infernukoak hobe?

◆ **Ttipi-ttaparen edizio elektronikoa ere zuk prestatzen duzu. Lan aunitz ematen dizu?**


❖ Zuek ez didazue lana errea paratzen!

◆ **Interneten maiz xamar bisitatzen dituzun gune gomendagarriak?**

❖ Gurea: ttipi-ttapa www.jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa eta Oronozko eskolako gune berria (musika eta guztiz!): www.pnte.cfnavarra.es/~cporonoz.

◆ **Irakaskuntzan, «letra odolez sartzen da»?**

❖ Letrak, eta bertze guzia, haurrengan errespetoa izanez lortzen da.



Xabier BALLARENA

ERRATZU
Irakaslea

EGUZKI
OSTATUA

Era guzietako bokatak, hotzak eta beroak

Kaxulak

Bazkari eta afari bereziak enkarguz

Erretegia

Legia, 39 - BERA - ☎ 948 631 012

E D A R I A K

● ● ●

○ ○ ○

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

KULTURKARI

Inprenta lanak

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

☎ **948 63 11 88**

HERRI JAKINTZA EUSKALTEGIA

Nafarroa Hiribidea, 13 - behea
20300 IRUN
Tfnoa.: 943 63 52 66

HABEK homologatua

UDAKO IKASTAROAK
UZTAILA:
egunero 2 edo 5 ordu

MATRIKULA EPEA: Ekainaren 25a arte

ttiipi-ttapa telebista k urtea bete du

EKAINAREN 15EAN TTIPI-TTAPA TELEBISTA ABIATU ZENETIK URTE BAT BETE DA. GIBELERA BEGIRATU ETA KRONOLOGIA TTIKIBAT OSATU DUGU, URTEAK EMAN DITUEN EGUN ETA GERTAERA GARRANTZITSUEN EKIN:

• **98ko apirilak 26:** Almandozen, *Apirileko Ferian*, bere lehendabiziko agerraldia egin zuen TTIPI-TTAPA TELEBISTAK.

• **98ko maiatzak 24:** Arantzan UEMA eguna ospatzen zela probetuz, aurkezpen ofiziala egin zen. Lamixine antzerki taldeak sketch-a antzeztu zuen gertaera azpimarratuz.



• **98ko ekainak 1:** Herri telebista honek bere lehen irudiak emititu zituen, telebideoa martxan jarritz. Urtebe-

tetze agurrak, publizidadea eta bertzelako informazioak agertu ziren lehenengoz.



• **98ko ekainak 15:** Lehendabiziko emisioa. Nerbioak eta arazo teknikoak tartean, behar baino orduerdi beranduago hasi zen informatiboa.



• **98 uztailak 5 eta 6:** Lehendabiziko programa berezia emititu zen. Lesakako San Fermineko buruz hain zuzen.



• **98ko irailak 14:** Lehenengo *Jokoa Solas* kirol programa aineratu zen, Aitor Arozena eta Felipe Saragueta aurkezleek gidatua.


• **98 irailak 16:** *Bidegurutzean* kultur magazinaren lehendabiziko emisioa.



• **98ko irailak 25:** *Herriz-herri* saioa estreineko aldiz emititzen da.

• **98ko abenduak 28:** Inoxente eguna; ur-

teko programazioan egindako hankasartze xeblereenen errepasoa eta... *inuxentada* opari.



• **99ko otsaila:** Iñauterietako irudirik ikusgarrienak bildu ziren herriz herri. Bestetan bezala bideoak jarri ziren salgai.

• **99ko martxoak:** Arantzako Otsagarra eta Lesakako Deskarga mendietan antena berriak jarri ziren.

• **99ko martxoak 24:** Korrikari buruzko programa, eskualdean barrena pasatu zeneko irudiekin.

• **99ko apirilak 16:** *Herriz herri* programaren Sunbillako berriak hasten dira agertzen.



• **99ko maiatzak 6:** Malerreka 13 herritan TTIPI-TTAPAREN seinalea hartzen da, Askin mendiko antena berriari esker.

• **99ko maiatzak 10:** Herri Urratseko irudiekin saio koloretsua.

• **99ko ekainaren 13a:** Kanpainak irau duen biastetantalde politikoen programak ezagutarazi eta ordezkari desberdinak mahai inguruan bildu ondotik, hauteskunde arratsean emaitzen berri eman zen gertatu ahala.



• **99ko ekainak 15:** Lehen urteurrena ospatzeko programa: urtebeteke errepasoa irudietan.

Urte bateko ZENBAKIAK

- 1.009 berri eta erreportai
- 542 elkarrizketa
- 258 programa

ANEKDOTAK

Urte bateko errepasoak anekdota aunitz kontatzeko aukera ematen du egunerokoa lantzen duen telebista batek, eta gehiago telebista hori sortu berri baldin bada. Hona hemen bakarren bat:

Jendea laster ohituratu da herri telebistarekin elkarbizitzera, baina batzuei nahiko kosta zitzaion hori asimilatzea. Egune batean estudioan agertu zen emakume hareri, adibidez, (aitzineko egunean elkarrizketa egin ondotik) eanola arraio atera genuen bera telebistan, orain "Es-

painia guzia" bere bizkar ariko zela losasean...

Bertze behin, Doneztebeko Mendi Bizikleta lasterketan, epaile modura aritzea tokatu zitzaion kamara bati. Izan ere, proba akaututa seigarren tokian sartu zen txirringulari bat goitu baitzen podiumera, eta antolatzaileek ez zuten afera batiere garbi. Hortaz, grabatutakoa atzera bota eta azken epaia eman zuen TTIPI-TTAPA TELEBISTAK.

Gisa honetako telebista baten helburu nagusienetako bat herriko jende xumeei hitza ematea baldin bada ere, denoi gustatzen zaigupertsonaia famatuak iku-

si eta haien iritziak aditzea. Ahal izan duen guzietan lan horretan saiatu da TTIPI-TTAPA TELEBISTA.

Horrela, zuen etxeetako pantaila eta Migeltxo Saralegi, Inaxio Errandonea, Asier Olaizola, Miguel Indurain eta Osasunako Tiko bezalako kirolari ezagunak eraman ditugu; Xabier Arzalluz, Josu Jon Imaz, Karlos Garaikoetxea eta Fernando Barrena politikariak ere agertu dira; kultura munduko jendeen artean, berriaz, Amaia Zubiria eta Joseba Apaolaza antzerkilariak egindako elkarrizketak aipa daitezke, baita Gotzon Garate eta Andu Lertxundiri egindakoak ere.

Lur-erori berri batek Belateko tunela itxiarazi eta kezka sortu du

Dagoeneko ireki badute ereere uztailaren bigarren hamabostaldian itxiko dute berriz

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 28an gertatutako lur-erori baten ondorioz, berriz ere Belateko tunelaitxi egin behar izan dute. Nahitaezko konponketak egin ondotik ireki dute berritua, baina badirudi uztailaren bigarren hamabostaldian, trafikoa jausten dela probexuz, hamar bat egunez berriz irekitzeko dutela sakon-sakoneko moldaketak egiteko.

Erori berrihonek haserrea sortu du gidarriengan: alde batetik, gauza onetara ohitura-tzea errega delako, eta bertetik, gizon bat zauritua suertatu zelako. Gainera, lurra erori baino bizpahiru aste lehenago SOS-Nafarroan arriskuaz abisatzen zuten deia jaso omen zuten, nahiz eta Nafarroako Gobernuak hori gezur-



Zozaia eta Sunbilla arteko errepide berria egiteko 3.086 milioi pezetako aurrekontua onartu da.

tatu. Gauzak honela, trafikoa errepide zaharretik bideratu behar izan da eta lehenbiziko ondorio latzak ekainaren 31n suertatu ziren: Ingalaterrako Thebolchill herriko 31 urteko Gannon Francis Wilkinson gidaria zauritua suertatu

zen, berak gidatzen zuen kamioia errepidetik ateratzen zenean. Nahiz larritasun handiko zauririk ez izan Iruñeko ospitalean ingresatu zuten gidaria. Istripua gertatu zen karrila itxita egon zen grua batek kamioia erretiratu arte.

Zozaia eta Sunbilla arteko errepidearen lanen kontratua

Zozaia eta Sunbilla artean, N-121 errepidea berritzeko lanen kontratua egitea onartu du Nafarroako Gobernuak. Guzira 3.086 milioi pezetako aurrekontua da.

go Zozaia-Donozebe eta Oronoz-Sunbillatar-teak moldatzeko. Horietatik 25 milioi aurtengo diru-kontuetatik hartuko dira, 1.000 milioi heldu den urteko aurrekontutik, 1.400 milioi 2001. urteko aurrekontutik eta gainerako 661 milioiak 2002. urteko aurrekontutik. Errepideak hartuko dituen lurren okupazioa ere onura publikokoa izendatu dute. Azken honen aurrekontua 146 milioi pezetakoa da.

Bertzalde, errepide bereko 36,700 eta 38,460 kilometroen artean, Almandozen, laugarren karrila egiteko baimena ere eman dute Iruñetik. Lan honen aurrekontua 94,7 milioi pezetakoa da. Horietatik 25 aurtengo herri kontuetatik hartuko dira eta gainerakoa heldu den urteko aurrekontutik.

ROMANO PINTURAK

Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa eta sintasola.

© 948 63 11 37 / 649 84 01 49 • BERA

FOTOKOPIAK
tsuri beltzean
KOLORETAN
PLASTIKAZIOAK
ENKILAKATZEA
KULTUR ETXE
AURREAN
BERA
Tel-faxa: 948 63 15 21

DISEINU GRAFIKOA
INPRENTA
LANAK
SERIGRAFIA
ERROTULOAK
PUBLIZITATEA

zapatak
osagarriak
konponketa

kalotxa

Kanttonberri 6 Bera
© 948 631516

Biur

Informatika zerbitzuak

UDAN INFORMATIKA IKASTAROA

- Noiz?: Uztailan
- Izena emateko epea: ekainaren 26a arte
- Ikasgaiak:
 - Windows 98 lehen ikasgaiak
 - Office 97 (Word, Excel, Acces, PowerPoint)
 - Internet-en lehenbiziko urratsak

Kanttonberri karrika, 4
31780 BERA

Tel.: 948 63 10 83
Fax.: 948 63 06 73

E-posta: biur@jet.es
biurcb@jet.es

Joan den ortzegunean egin zuen azken bilkura oraingo Udal taldeak

Hurrengo Udalbatzak uztailaren 3an hartuko du kargua

ASIER GOGORTZA

Seguraski legealdi honetako azken bilkura izanen dena egin zuten joan den astean Herriko Etxean, Bilkura Bereziagainera. Gai nagusia, Ibardingo kantina batean obra egiteko (pareta bat moldatzeko) Udalak Nafarroako Gobernuari eskatuko dion dirulaguntza izan du zen. Ados jartzen ez zirenez, bozketa bidez erabaki zuten. HBko bizi zingotziek ezezko botoa eman zuten, jabeak ordaindu behar duela argudiatuz, baina gainerako udal ordezkarien botoekin aitzinera ateriz proposamena.

Piszinako bonoak

Aste honetan ideki dira herriko igerilekuak. Aurtengo udan ostatua eta piszinaren arduradunak Asier Larrañaga, Mikel Larretxea eta Ibai Gogortza gazte beratarak izanen dira. Gauza haundirik ez bada ere, piszinen egoera hobetze aldera obra ttiki batzuek egiteko intentzioa dute arduradunek.

Sarrera-bonoak joan den urteko prezio berberetan erosten ahal dira Herriko Etxean: denboraldi osoko bonoak 4.125 pezeta balio du helduentzat, 1.650 pta

10 eta 16 urte bitartekoentzat, eta 700 ttiki-entzat. Hilabetekoak, berriz, 3.300, 1.200 eta 650 pta, hurrenez hurren. Azkenik, egunbarkarreko sarrerak 475 pta balio du haundientzako, 275 gaztetxoentzat, eta 150 haurrentzat.

Gasherbrum Ilko espedizioaren berri

Himalaya aldera abiatu zirenetik aste bat joan da dagoeneko, baina oraindik ez dugu haien berri haundirik. Islamabad hiriburura ongi ailegatu zirela badakigu, eta handik mendiko autoetan kanpamendu base aldera jo dutela ere bai. Denaden, egun hauetako batean ailegatuko dira, eta telefonoz deitzen dutenean TTIPI-TTAPA TELEBIS-TARI emanen diote elkarrizketa ttiki bat. Erne beraz!

diko autoetan kanpamendu base aldera jo dutela ere bai. Denaden, egun hauetako batean ailegatuko dira, eta telefonoz deitzen dutenean TTIPI-TTAPA TELEBIS-TARI emanen diote elkarrizketa ttiki bat. Erne beraz!



Patxi Vilak hirugarren egin du Nafarroako Itzulian

Podiumean egoteaz gain, lehen nafarraren mailot xuria jaunztea lortu du Patxi Vila txirrindulari afizionatuak Nafarroako XXXVIII. Itzulian. Maiatzaren 31tik ekainaren 6ra luzatu zen lasterketa hau, eta Baztandik Lizarraraino joan zen etapan erabaki zen sailkapen nagusia. Patxi Vila lehendabiziko taldean ailegatu zen egun horretan, eta bertze etapetan ere punta-puntan ibili zen. Honenbertzez, lasterketa garrantzitsuetan aitzinaitzinean egoteko maila nahikoa baduela erakutsi du Caja Rural taldeko beratarak, nahiz eta berriki lesionatuta egondu den hilabete terdiz. Ia orain profesioletako talderen batek begiz jo eta xoko bat egiten duen beretzat. Bertzalde, Telcom-Bagordiko Esteban Altuna beratarak ere itzulia bukatzea lortu du, 83. postuan hain zuzen. Aipatu behar da Nafarroako Itzulia akautu zen egun berean Jon Bruk bertze garaipen bat lortu zuela Ataunen.

flash

Gure Txokoaren eskertza

Mailaz goitzea lortu duten Erregional eta Aretotako futbol taldeak zoriondu nahi izan dituzte zuzendaritza batzordeak. Halaber, elkarrean izenean jotzen duten bertze talde guzieren eskerrak eman nahi dizkiete Gure Txokoak, baita beren laguntza edo babesna eman duten pertsona guzieren ere.

Leherketa

Altzate karrikako Erosle janaridendan hozkailu batek ztanda egin zuen joan den ortzegunean, eta ondorioz sute ttiki bat bixtu zen. Hala ere, suhiltzaileak berehala etorri eta itzali zuten. Arratsaldeko 3ak zirenez, ez zegoen inor dendan, baina bizilagunek ikarierara hartu zuten ezta darenkin.

Udalekuak

Ortzirala da azken eguna Kaxernako Udalekuean apuntatzeko. Euskadiko Kutxan duten kontuan dirua sartuz apuntatu behar da. Bertzalde, larunbatean ludoteka itxi egingen dute iraila artio. Txilintxak ere 7 urtetik goitiko haurrentzat udalekuak egiten ditu abuztuaren 9tik 15era. Izena emateko San Esteban Parrokiara deitu behar da, 948 630 086 telefonora.

ie Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekaritza
- Aseguruak

Kanttonberri | BERA • Tel eta Faxe: 948 631 169

Javier Manterola

TEKNIKO
INSTALATZAILEA

iturgintza • gasa • kalefakzioa

Tfnoa: 948 630 031 • BERA

Botoxo

OSTATUA

© 948630052 • Zalain • BERA

GOZOTEGI-JASONE

Altzate, 19 • 948630786 • BERA

LESAKA

San Fermin jubilatuko elkartekoak oinez joanen dira San Juan Xarrera

Cuencako espetxera martxa abiatuko da ekainaren 26ko goizaldean

AITOR AROZENA

Heldu den ortzeguan, San Juan eguna ospatzen dela eta, San Juan Xarrera mendi ibilaldia antolatu du San Fermin erretiratu elkarteak. Oinez abiatzen direnak goizeko 9,30etan abiatuko dira egoitzatik eta urteroko lekuan hameketakoa izanendute. Autobusa nahiago dutenek berriz, 11tan abiatuko dira plazatik. San Juan Xarren meza aditu ondotik, bazkaria Arantzako Burlada jaxtean izanen dute, ordubiak aldera, honako menu honekin: Entremesak, arrain zopa, solomilloa eta tarta (ardoa, txanpaina, kafea, kopa eta puroa barne). Egun honetarako txartelak jubilatuen egoitzan salgai izanen dira 2.700 pezetatan, ekainaren 20a bitarte.

Aipatu behar da eguzkia ikusi orduko indartsu hasi dela jubilatuen mendi taldea, joan den ortziralean San Antonera joan baitzen.

Bertzalde, jubilatuen egoitzan kontzertua eskaini dute larunbat honetan Musika eskolakoek. Oihana Abuin, Iñigo Apezetxea, Jon Olaizola, Joseba Pikabea eta Xabier Maritxalar bakarlari gisa aritu



Pala eta paleta txapelketaren finalak uztailaren 3an

Arkupe pilotazale elkarteak antolatutako emakumezkoen paleta-goma eta gizonezkoen pala motza txapelketetako finalak uztailaren 3an jokatuko dira aurtten. Emakumezkoetan hamasei bikotek eman dute izena eta gizasemeen artean, berriz, zortzik. Lehendabiziko fasea azken txanpan sartua dago dagoeneko. Finalerdiak ekainaren 26an jokatzea espero da. Argazkian, joan den urteko finalistak ageri dira.

Artxibokoa

ondotik, saxofoi taldea eta klarinete taldearen txanda izan zen. Azkenik, Gabi Igarzabal eta Jose M^o Floresek hiru kanta herrikoi abestu zuten.

Presoak Euskal Herriratzearen alde Cuencara martxa

Euskal presoak Euskal Herrira ekartzearen alde Cuencara martxa eginen da ekainaren 26an, Lesakatik goizaldean abiatuta. Jakinen duzuen bezala, Iñaki Fagoabea preso Cuencako espetxean dago. Bidaiak

sortzen dituen gastuak ordaintzeko laguntza bonoak salgai jarri dira Arrano, Kattu, Haizegoa, Atxaspi, Sasaki-Zar eta Sasaki-Berri ostatueta. Bortzirietako Herri Ekimenak, bertze zenbait herrietako herri ekimenekin batera antolatu du ekitaldia.

Saskibaloi txapelketak Sanfermin bezperan

Beti Gazte elkarteak, Lesakako Udalaren eta Nafarroako Aurrezki Kutxaren laguntzaz antolatuta, hiru hiruren

kontrako saskibaloi txapelketa antolatu du uztailaren 3rako. Bi mailatan banatuko dira partehartzaileak. Juniorrak, 12tik 17 urtera, eta seniorrak, 17tik goiti. Hiruko txapelketa ere jokatuko da, arratsaldeko 3etatik goiti, Irain pilotalekuan. Senior mailako txapeldunak 20.000 pezeta eramanen ditu, junior mailakoak 10.000 eta hiruko txapelketaren irabazleak mila duro. Informazio gehiago edo izena emateko, 948 627558 telefonora deitu behar da.

flash

Zinema Euskaraz

Ortziral honetan, ekainak 18, euskaraz egindako zinema ikusteko modua izanen da Arrano elkartearen Arratsaldeko Setan haurrei zuzendutako pelikula emanaldia izanen da. Gaueko 10etan, Jon Anduezak zuzendutako «Bernar» eta «Laugarren Geleriatic» laburmetraiak emanen dira. Arrano elkarteak antolatu du ekitaldia, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz.

Ezpatadantzari taldeak

hiru lagun behar dituzten aurtengo Sanferminetarako taldea osatzeko. Interesa izanez gero, dantzariekin harremanetan jarri.

Udal igerilekuak zabalik

Asteartetik aitzina zabalik daude udal igerilekuak. Joanduen urtean bezala, aurteneren ere Mikel eta Nerea Iriarte anai-arrebak, Maite Mendegia eta Igor Portu izanen dira arduradunak.

Bereau ostatuak berriro zabalik

Igande honetan, Bereau ostatuak bere atean zabaldu dituzte berriro, moldaketa lanak egin ondoren. Ongietorri gisara, hameketakoa eskaini zioten bere berezeroei.

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
© 948627573 • LESAKA

XATURETXEA

JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

Txema Etxarte
Zolen akutxilatze eta bernizatze profesionala
© 948 637439 • 31700 LESAKA

Kizkur
leapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 beheha
LESAKA

ETXALAR

Gasna Feria errekestatsua gertatu zen

Arratsaldeko luzapenak ere jendea erakarri zuen

PELLO APEZETXEA

Errekestatsua izan zela erraiteko arrazoiak badira. Goiz eta eguerdialdean bertze urteetan hainbertzeko jende kopurua zela erraten ahal badugu, arratsaldean haundiago zela erran beharrean gaude. Gauza berria zen arratsaldeko haurren dantza saioa, bere kezka sortu zuena, gauza berria eta ordu berria den guzietan bezala, baina hagitz ongi erantzun zuen jendeak.

Andra Mari Elkartearen biltokiko erakusketak ere, urtean barrena egindako eskulanean erakusketak, alegia, ez zuen ikusle faltarik izan. Bazkaltzen, plazan, ehun lagun bildu ziren,

eta Lesakako hiru bertsolari beraiekin, bazkaldooa girotzen: Manolo Arozena, Silveira eta Iñigo Olaetxea. Eta bertze bi gauza aipagarri: gasna zatien zozketarako txartelak, aintzineko urtean halako bi saldu ziren, 30.000 pezetarenak duela bi urte, 60.000renak aurten. Eta ia-ia gauza bera gertatu zen arto opila edo taloekin: 35.000 pezetarenak, hondarrekoan; oraingoan, berriz, 50.000renak. Beti aritzen direlako, ez ditugu herriko trikitalari gazteak atzendu behar.

GASNA SARITUAK

Gasna Ferian egiten den gasna onenaren sariketan, baztandarrak izan dira nagusi. Lehe-



nengo saria Amaiurko Felisa Irungaraik eman zuen. Arizkungo Iñaki Aristizabalek bigarrena. Eta herri bereko SAT-Amaiurrentzat izan zen hirugarrena. Etxalarkoen artean, Irigoieneko Bordako Isabeleri eman zioten lehen saria, eta Aldalurko Bordako Juanari bigarrena.

Andutzetako aparkalekua berehala prestatuko da

Etxeberriberea eta Intzea arteko baratza erostia du Udalak, ber-



Gasna lehiaketaren irabazleak eta artisautza erakusketa.

Legarra eta Pello

tan aparkalekua egiteko asmoz. Horretarako lanak berehalahasi nahi ditu, eta F.J. Chocarro eta M^a Urmeneta arkitektoek pentsatutako

proiektua herriko igeltesero eta harginei bidali die, beren eskeintzak egin ditzaten. Hasierako aurrekontua 696.614 pezetakoa da.

ANA
Janaridenda
Bittiria, 41 • ☎ 948637518
LESAKA

Manuel Zamorano
Zaharritarri
Bernizadurak
Pintura
orohar
☎ 689 042 671 • 948 637556
Bittiria, 37 • LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

BEKO ERROIA
Lore eta landareak
Frain auzoa • ☎ 948637826
LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

KAXULA
Sukaldeko tresnak
Opariak
Pinturak
Laister zabalik!
Albistur, 51 LESAKA
☎ 948 63 75 58

OBRA PROIEKTUAK
✓ Etxe berriak eraikitzeko
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
✓ Urbanizazio proiektuak
✓ Obra-zuzendaritza
Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan
BIDASOA
arkitektura bulegoa
Bittiria, 45 • ☎ 948 637 503 • LESAKA

ETXALAR
HOTEL-VENTA
Piszina estalia klimatizatua
Urte guzian irekia
Izen emateko epea ekainaren 13tik aitzin
N-121-A errepidea, 70. km • ETXALAR
Tel.: 948 635 000 - Faxa: 948 635 263

IGANTZI

Hastera doaie herriko pala txapelketa

ETB-1, ETB-2 eta TTIPI-TTAPA TELEBISTA ikusteko antena paratu da Berrizaunen

OSKAR TXOPERENA

Hamabi izanen dira azkenean Biltokik antolatutako herriko Pala Txapelketa jokatuiko duten bikoteak. Pilotaleku berria egiten ari zen bitartean, urte bat jokatu gabe pasatu ondok, berrian jokatuiko den lehenbizikoa izanen da hau. Nabaritzen da txapelketa gainean daukagula, egunotan normalean baino jende gehiago ikusten baita palaz jokatzeko. Bertzalde, haurren pilota ikastarok ekainaren 23an izanen du despedida. Abuztuaren 25ean hasiko dira berriz, bestetan partiduxka batzuk jokatu ahal izateko.

Haurraren eguna eta eskursioa

Landetara eginen da

seguraski eskolako aurtengo eskursioa, bertan dagoen ur-parkera. Aintzinetik aipatutako data ekainaren 17a zenez, han nonbait behar dute izan aldizkaria kaleratzen denean. Haurraren eguna, berriz, 22an izanen da, ikasurtea akautzeko hagit gutti faltadenean. Egun hori ere ekitaldiz bete izanen dute irakasle, ikasle eta hurbildu nahi duten guraso guziek.

Berrizaunen TB antena berria

TTIPI-TTAPA TELEBISTAREN aldeko diru bilketa kanpaina zela medio, telebista ikusteko zizutzen arazoak agertarazi zizkieten auzotarrek zinegotziei. Azkenean iduri du zentral gainean paratutako antenarekin seinalea etxe

gehienetara behar bezala ailegatzen dela. Jakinerazi behar da kate bakoitza ikusteko telebistak sintonizatu behar direla, kanal hauetan hain zuzen: TTIPI-TTAPA TELEBISTA: 33, ETB 1: 41 eta ETB 2: 45.

Piszinaren kudeaketa

Piszinetak ostatua eraman eta aldagelak garbitzeko bi eskaera bazirela erantzen aintzineko alean. Bi eskeintzak ikusita, lana Maider, Leire, Begoña eta Ainhoa gazte herritarrei ematea erabaki zuen Udaltzarak, egindako azken bilkuran. Ea dena txukun-



Korpus Eguna

Ekainaren 6an ospatu da aurtengo Korpus eguna. Argazkia joan den urtekoarena da.

txukun eduki eta zerbitzu ona ematen duten dagoeneko lanean ari diren gazteak.

Gaiarekin jarraituz, piszinaren paretetan zenbait moldaketa egin behar izan direla aipatu behar. Aspaldi sa-

marretik dabil ura galtzen, eta, azterketa bat egin ondok, piezen artean joaten ote zaionaren ustea dute horretan aritu direnek. Bete ondok ikusi beharko moldaketek zerbaitarako balio izan duten.

LABE ZAR
© 948631076 • BERA

SAROB
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

CONSTRUCCIONES MECANICAS
BERRIZAN S.L.
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

LESKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago
Bittiria, 67 - © 948637264

EROSLE
LESKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago
Bittiria, 67 - © 948637264

Gizon eta emakumeen arropan konponketak eta moldaketak egiteko zerbitzu azkarra
MOLDAKETAK KONPONKETAK
RETOUCHERIE
de *Manuela*
Colon Pasealekua 64, behea (Trenbideko zubiaren ondoan)
© 943 660 292 • IRUN

LANCHAS
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura Orokorrak
Bera
© 948630735

ARANTZA

Ikasturte akabailako ateraldiak egiten ari dira eskolako neska-mutikoak

Ekaitza elkarteak pilota txapelketa antolatu du, urtero bezala

ELIXABET ETA GARBIÑE

Eskolako haurrek aurtengo ikasturtea akautzeaz dute eta azken hauek ateraldiak egeiteko egun aproposak dira. Horrela, pasaden astean, Haur Hezikuntzakoek Zarautzen pasa zituzten bi egun eta aste honetan, berriz, DBHko ikasleak Barzelonara joan dira ikasbidaian. Hamalau ikasle eta bi irakasle asteartetik igandera bertan egon dira.

Bertzalde, herrian ere somatzen ari da udaren hasiera eta Aterpera etortzen diren haurrek herria ederki animatzen dute. Azken astean, Donostiako Zurriola auzoko eta Iruñeko haurrek egon dira bertan eta asteburutan berriz, leku ezberdinetako eskalategietatik etortzen dira ikasle-irakasleak



San Juan suak

San Juan bezperarako prestatzen ari dira herriko neska-mutikoak. Biharamonean San Juan Xarrera izugarritzko jendetza hurbiltzea espero da.

Arantzán egun eder eta alaitsuak pasatzera.

Lehen jaunartzeak

Ekainaren 6an, igandean, Korpus Kristi egunarekin batera, lehen-dabiziko jaunartzeak

egin ziren herrian. Lau haurrek, Julen Oskoz Elizondo, Maider Almandoz Indakoetxea, Ainara Aranburu Madariaga eta Jon Alzuri Otxoteko lehen aldiz hartu zuten jauna.

Elizkizunaren ondotik, eguraldi ederra aprobetxatuz, Korpus Kristi eguneko prozesioa egin zen. Gero, gonbite eder bat izan zuten, bertan parte hartu zuten guziki Zahar Txokon.

Pilota txapelketa

Urtero bezala, aurtengo Ekaitza elkarteak pilota txapelketa antolatu du. Kategoria guzietan parte hartu ahal izanen da, infantil, junior eta seniorretan, alegia. Txapelketa hau udan jokatu da eta bertan izena emateko Ander Agesta edo Gaizka Almandozeri deitu behar zaio. Izen emateko epea ekainaren 12an akautzen bazen ere, azken ordukoak oraindik saiatzean ahal zarete jokatuta nahi baduzue.

Lan-poltsa

Bertziko Turismo Partzuergoak jakinarazi dutenez, udan lana egin nahi duten gazteentzat lan-poltsa bat ireki dute. Lan-poltsa horretan sartzeko, Herriko Etxean dauden paperak bete behar dira.

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Omnia antzinak	Moldurak
Lehoak	Zokaloak
Ateak	Hilarrak
Arkuak	Marrakziak
Pilareak	

'Abu jantxoak' Muzioa
Zabur antzuloa Tzuperrua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

**ALBERGEEA
JATETXEA**

© 948634179
ARANTZA

GRUPO ZURICH

ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — © 948 630763

**ZALAIN
JATETXEA**

Zalain Auzoa
© 948631106
BERA

EGUNEKO MENJUA ETA KARTA

Boda eta banketeak ematen dira

DROGUERIA MOLINERO

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia

Eztegara 19 • © 948 63 02 40 • BERA

SUNBILLA

Bertso saio mundiala prestatu du Antzakaitz taldeak iganderako

Herriko bestetan ekitaldi ezberdinak antolatzeko dirua ateratzea dute helburu

JAIONE ETA ALBA

Antzakaitz kultur taldeak antolatuta, igande honetan, ekainak 20, bertso saio mundiala izanenda Sunbillako pilotalekuan. Arratsaldeko 6etan bilduko dira sei bertsolariak: Estitxu Arozena, Bittor Elizagoien, Xabier Silveira, Xebastian Lizaso, Iñaki Murua eta Andoni Egaña. Beraz, eskualdeko hiru bertsolarietako batera (Nafarroako azken hiru txapelketetan txapeldun suertatutako hirua, gainera), Gipuzkoako bertze hiruzen dira jaialdi honetan (hauen artean, azken bi txapelketa nagusietan gailendu den Andoni Egaña zarautarra).

Antzakaitz taldeak jakinarazi duenez, egun horretan biltzen den diruarekin, aurtengo bestetarako ekitaldi desberdinak antolatu nahi ditu. Horretaz gain, herriko gazteak ere animatzen dituzte ekitaldiak antolatzen laguntzeko, kontuan hartu behar baita herriko bestak guztienak direla eta alaituago izan daitezen guztiok saiatu behar dugula.


Bertzalde, Antzakaitz kultur taldeak hemendik aste batzuetara kamisetak, txiskeroak, bixerak, pegatak eta bertze zenbait materiale aterako ditu salgai, beti aitzinetik aipatutako asmo berarekin, hau da, bestetan ekitaldiak antolatzeko dirua biltzea.

Korpus Kristi egunean prozesioa egin zen

Gogoratuko duzue, Aste Santuko prozesioa egin zen aurten. Korpus Kristi egunean ere, eguraldiak lagundu zuenez, prozesioa egin da. Lehen jaunartzea egin zuten neska-mutikoez, udal korporazioarekin batera, herriaren bama ibilaldia egin ondotik, eliza atarian Faustino Mariezkurrena zinegotziak Sunbillako bandera dantzatu zuen. Modu honetan, agur egin zion oraingo zinegotzi lanari.

Arrigazteluko lanak

N-121-A errepeidean Arrigazteluko tartearen hobetze lanak egitea balioko publikoak izenda-



la 3 kiloko amoarrain ederra

Paco Sanzberro Sunbillako arrantzaleak 2,75 kiloko amoarrain eder hau harrapatu zuen Murgeseko presapean. Atera baino lehen, lan aunitz egin behar izan zuen, ordu laurden batez aritu baitzen arraiarekin borrokan. Ondotik, otordu ederra izan zen zuten, seguraski. Argazkian, Sara alabak erakusten du amoarrain bikaina.

tu ditu Nafarroako Gobernua eta lan honek hartuko dituen lurrak eta ondasunak lehenbailehen okupatzea erabaki du. Iruñetik 18 milioi

pezeta bideratuko dira lan honetara: bi milioi terdi 1999ko aurrekontuan, 14 milioi 2000. urtekoan eta milioi terdi 2001. urtean.

**TXIRULA**

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

Albistur, 39-K
☎ 948627542 • LESAKA

J. RAMOS

Zolak akutxilatatu eta barnizatzen dittut

☎ 948631342 BERA • ☎ 948637172 LESAKA

ttipi-ttapa internet

<http://www.jajl.com/txapagooa/ttipi-ttapa>
E-mail: ttipi-ttapa@txapagooa.jajl.com

FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Donoztebe

**MALDAERREKA, S.L.**

24 orduko zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik edozein herritarra trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK



- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

MALERREKA

Arkupeak elkarteak adinekoak omenduko ditu ekainaren 25ean

85. urtemuga eta Urrezko Ezteiak ospatzen dituztenak

PATXI IRIARTE

Ekainaren 25ean Arkupeak elkartearen egun handia ospatuko da Donezteben. Egun horretan, elkartearen hamahirugarren urteurrena gogoratzeaz gain, 85 urte bete dituzten adinekoak eta 50 urte esposaturik egin duten bikoteak omenduko dira,

Nafarroako Aurrezki Kutxaren laguntzaz.

Autobusak goizeko 9,30etan abiatuko dira Goizueta, Urdazubi eta Zugarramurditik; 10etan Irun eta Leitzaatik; 10,15etan Eratsun eta Ezkurratik; 10,30etan Bera, Etxalar, Arantzeta, Elizondo ingurua eta Almandoztik eta 10,45etan Zubieta,

Sunbilla, Oronozetain-guruko herrietatik. 11,30etan Meza izanenda, Bikario orokorra eta zonaldeko zenbait apezzen eskutik. Nafarroako Gobernu eta udal ordezkariekin batera, bertsolariak eta txistulariak ere izanenda dira elizan. Ondotikoparia emanenda zaie omenduei.

Bordaxoko bazka-

ria Argedaseko *Moder-no* Jatetxeak eskainiko du, urtero bezala: fritotak eta langostinoak, izozkia, legatza erromatar erara eta umerria entsaladarekin, tarta helatuekin eta txanpainena, ardoa, ura, kafea eta kopak izanenda dituzte aukeran. Bazkalondoa, dantzaldia izanenda da Amalur taldearekin.

Malerreka oinez ezagutzeko modua asteburu honetan Langarraren eskutik

Malerreka herriz herri eta oinez ezagutzeko aukera ederra izanenda da aste honetan, Langarra euskara taldearen ekimenari esker.

Larunbatean, ekainak 19, 30 kilometroko ibilaldia eginenda dute. Ezkurratik goizeko 8etan abiatu eta Eratsun (9:00), Saldias (10:00, gosaria), Beintza-Labaien (11:45), Urrotz (13:00), Oitz (14:00), Donamaria (14:30, bazkaria), Doneztebe (17:00), Legasa (17:30), Oieregi (18:15) eta Nabarte (18:30) igaroko dira, ibilaldia Legasan akitzeko, afari berendubatekin. Bazkaria norberak eraman behar du eta Legasako afari berendua Langarrak antolatu du.

Igandeko ibilaldia Laburragoa izanenda da, 12 kilometrokoa. Sunbilla aterako dira 9etan eta Bostorratz (10:00, gosaria), Elgorriaga (11:30), Ituren (12:15) eta Zubieta (13:45) igaroko dituzte.

HERRI BAZKARIA ETA KONTZERTUA ZUBIETAN

Zubietan herri bazkaria eginenda dute Herriko Ostaturako estalpean. Txartelak ekainaren 18a arte hartzen ahal dira 2.250 pezetaren truke, Beintza eta Zubietako ostaturak eta Malerrekako euskaltegia eta Ekaitza ostaturak Donezteben. Kontzertua ere izanenda Zubietako plazan arratsaldeko 7etatik aitzinera, Gorramen-di 10 taldearekin.

Autobus ibiltaria izanenda da kotxe eske joateko, larunbatean, Donamarian goizez eta Legasan arratsaldean igandean Zubietan.

Saldiasko San Juanak ekainaren 23tik 27ra ospatuko dira

Igandean aizkora apostua eta pilota partiduak jokatuko dira

Asteazkena, ekainak 23 San Juan bezpera

Arratsaldean eta gauetan dantzaldia MODESTO akordeolariarekin. 9etan San Juan suak. Ondoren, ohiturako baztan-zopak Herriko Ostaturak

Osteguna, ekainak 24 San Juan Eguna

9etan argi-soinuak txistulariekin. 12etan Meza Nagusia. 5etan mus txapelketa eta umeentzako jokoak herriko plazan.

Arratsaldean eta gauetan dantzaldia MODESTO-rekin.

Ostirala, ekainak 25

9etan argi-soinuak herriko trikitilariarekin. 2etan herri bazkaria trikitilariak alaitua. Arratsaldean eta gauetan dantzaldia EGAN taldearekin.

Larunbata, ekainak 26

9etan argi-soinuak herriko trikitilariarekin. 11etan plater tiraketa. Arratsaldean eta gauetan dantzaldia

JATOR taldearekin.

Igandea, ekainak 27

9etan argi-soinuak herriko trikitilariarekin. 1etan aizkora apostua: Mikel eta Patxi Mindegia, Arrospe eta Senosiainen kontra. 5,30etan pilota partiduak. Gazteak: Legarra-Urrutia, Ezkurra-Iraolaren kontra. Afizionatuak: Baleztena-Huarte, Jaurena-Mitxeoren kontra. Arratsaldetik gauerdia dantzaldia MODESTO-rekin.



Ostiralean Egan taldea izanenda da Saldiasen

t
San Pedroak
ttipi-ttapa
telebistan
62. kanala

BELARRA
OSTATUA - JATETXEA
Amezia karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 450 306

GAZTANDEGIA
LIZUN
Etxeko
Ardi Gazta
Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

ETXANDI
TXOKO
jatetxea
Bazkari, afari
eta gosariak
ITUREN
© 948 450 491

MALERREKA

Elgorriagako Bainuetxea martxan jartzeko hitzarmena sinatu zen ekainaren 10ean

Onddo eta Zizen Kofradiaren egoitza Diozesiak emandako etxera aldatu da

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 10ean Elgorriagako Bainuetxea martxan jartzeko hitzarmena sinatu zen.

Bainuetxe zaharra moldatu eta berriz ere lanean jartzeko aurrekontutik erdia Espainiako Gobernuo Sustapen Ministeritzak ordainduko du, 435 milioi gehienez ere, %30a Nafarroako Gobernuak, Industria, Merkataritza, Turismoa eta Lan Departamenduaren bitartez eta gainerako %20a Elgorriagako Herriko Etxeak. Azkenzati hau, ordea, Elgorriagako Bainuetxea, SL elkarte pribatuak jarriko du, bainuetxearen gestioaren truke. Sinadura ekitaldian, Jose Migel Galarregi Elgorriagako alkatea eta Ramon Bultó, Industria, Merkataritza, Turismoa eta Lan Departamenduko kontseilaria izan ziren.



Lehendabiziko jaunartzea Elgorriagan

Maiatzaren 16an lehendabiziko jaunartzea egin zuten Elgorriagako Santiago elizan Alvaro Perez de Arriluzia Dominguez eta Edurne Etxeberria Petrirenak. Tiburcio Sanzberro apezak eman zuen meza, lorez ederki apaindua zegoen elizan.

Diozesiaren etxea Kofradiarentzat

Ekainaren 3an, Onddo eta Zizen Kofradiarentzat arrontzatsua izanen den akordio bat sinatu zen Elgo-

rriagan. Sinadura horretan Kofradiako lehendakaria, Jose Migel Galarregi, eta artzapezpikutzako zenbait ordezkari izan ziren protagonistak. Hitzarmen

honen arabera, diozesiak etxe bat eman dio Onddo eta Zizen kofradiari, bertan antolatu dezan elkartearen egoitza. Gaur egun Elgorriko Kultur Etxea erabiltzen

du kofradiak bere ekitaldi guziendako, baina etxe hori ttikia gelditu zaie nonbait. Egoitza aldatzeko hasieran herriko errota erabili omen zuten burutan, baina hura ere ez omen da sobera haundia-eta, elizbarrutiak eskainitako aukera hau probetxudute eskerronez.

Ekitaldira, artzapezpikua bera etorri ez bazen ere, artzapezpikutzako hainbat ordezkari agertu ziren Elgorriagan: Miguel Maria Martinez abokatua, Jose María Usoz ekonomilaria eta Flotildo Martinez idazkaria, hain zuzen. Bertzetik, Onddo eta zizen kofradiatik, Jabier Boneta abokatua eta Jose Miguel Galarregi lehendakaria egon dira. Gainera, bi aldeen arteko zubi lana egin duen Tiburtzio Sanzberro erretorak ere sinatu ditu dokumentu guztiak.

ITUREN

Zaharberritze ikastaroa hasiko da larunbatean Ibintza taldearen eskutik

Lesakako abesbatzaren emanaldia larunbatean elizan

IBAN ISASI

Larunbat honetan hasiko da Ibintza kultur taldeak antolatutako zaharberritze ikastaroa. Larunbatero, arratsaldeko 3,30etatik 5,30eta-

ra Herriko Etxeko ganbaran, marmitak, pitxerak, kutxak eta bertze gauzak dekoratu, figurak pintatu, zurezko bandejak eta platerak egin, krakelatua egurrean eta bertze gisako

eskulanak egiteko modua izanen da. Ikastaroa dohainik izanen da, materiala ezik. Parte hartzeko Herriko Etxera agertu edo 948 451507 telefonora deitu behar da.

Lesakako abesbatza larunbatean elizan

Lesakako Abesbatzaren emanaldia izanen da Iturenen San Martin elizan ekainaren 19, larunbateko, 7,30etako mezan. Meza on-

dotik ere, kantaldia izanen da. Ibintza kultur taldeak antolatua.

Antzerkia Udaberriko Jira-biran

Nafarroako Gobernuaren Udaberriko Jira-biraren barnean, ekainaren 6an, antzerkia eskaini zuen T'ombligo Iruñeko taldeak. «Aitatxi mutua» antzeslana eman zuen eta jende aunitz hurbildu zen Herriko Etxeko ganbarara.

MALERREKA

Pilotaplaza estalia estreinatu dute Eratsunen

Inaugurazio ekitaldira Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko lehendakaria etorri zen

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 6an zabaldu zen Eratsunen Herriko Plaza izena izan duen pilota plaza estali berria. Inaugurazio ekitaldian Miguel Sanz, Nafarroako Gobernuko lehendakaria eta Javier Trigo, Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuko zuzendaria izan ziren. Pilota plaza egitea 47'1 milioi pezeta gostada eta azken erakunde honek, 15 milioi pezetako dirulaguntza eman du.

Pilotalekuak 37 metroko luzera du eta kasik 19 terdi zabal. Rufino Mariezkurrena alkateak adierazi zuenez,

«pilotaleku estalia izate lehentasuna zeneratsundarrentzat eta herritar guzien artean eraiki da».

ESKUZ BANAKAKO HAMAZAZPI TXAPEL HERRIAN

Eratsunek berrehun bat biztanle izanik, eskuz banakako hamazazpi txapel ditu (hameka Julian Retegik, Retegi Iik lortuak, eta sei bere osaba Juan Ignaciok, Retegi Ik). Honela, alkateak gogorarazi zuenez, *«pilota-ri eta herriko txapeldu-nei esker Eratsun leku askotan ezaguna da».*

David Garcia apaizak, Nekane Bendoiro,



Xabier Juanena eta Mikel Jorajuria haurren laguntzaz, bedeinkatu zuen plaza. Pilotaren Himnoa entzun ondotik herri bazkaria egin zen. Julian Retegiez zen Eratsunen egon inaugurazio egunean, baina Juan Ignacio Retegik egin zuen ohorezko sakea. Retegi I.aren ustez, *«hau egun haundia da herriarentzat».* Beste iloba batek, Jesusek, lehendabiziko partidua jokatu zuen, Iñaki Eskuderoekin batera, Iosu Baleztena eta Asier Irurie-



47 milioi pezeta gostada den pilota plaza berria trebatzeko aukera izanen dute herriko pilotari gazteek.

Argazkia: Diario de Navarra

taren kontra. Partidu berrorokatu baten ondotik,

azken hauek 22-21 irabazi zuten.

BERTIZ

Bidasoako jaialdien eta filme laburren zinemaldiko kartelak aukeratuak

Elizondoko Pello Mirena San Millan, Itziar Mena eta Polo izan dira saridunak

TTIPI-TTAPA

Bertizko Turismo Partzuergoak antolatutako Bidasoako Jaialdia 99 eta Filme Laburren II. Zinemaldiaren kartel lehiaketako kartel sarituak hautatzeko, ekainaren 7an, Bertizen epaimahaia bildu zen.

Epaimahaia Donez-

tebeko Esther Fernandez margolariak, Arantxa Arregi, Bortzirriak eta Malerrekako garapen agenteak eta Nora Eneterreaga, Bertizko Partzuergoko gerenteak osatu zuten.

Aurtengo Bidasoako Jaialdiek dagokienez, bost kartel aurkeztu ziren. Hasiera batean,

epaimahaiak horietako bi aukeratu zituen: *«Bertizko lamia»* eta *«Kontzertua»* izenekoak. Azkenik, hautatutako kartela *«Kontzertua»* izan zen, deigarria baina, alde berean, serioa delako eta kultura eta helburua argi adierazi edo erakusten duelako. Saritutako lana Eli-

zondoko Pello Mirena San Millan Bergararena da.

FILME LABURREN BIGARREN ZINEMALDIA

Bidasoako Filme Laburren Bigarren Zinemaldiko kartel lehiaketara, berriz, hiru kartel aurkeztu ziren, denak maila onekoak epaima-

haiaren ustez, eta *«Zuzendaria»*, *«Sombras»* eta *«Kamara»* izenekoak.

Kartel saritua, Elizondoko Itziar Mena eta Poloren *«Kamara»* izenekoak izan zen, alai izateaz gain, deigarria delako eta zinemaldia modu berexian adierazten duelako.

GOIZUETA

Xake eta txalaparta ikastaroak antolatu dituzte uztaileko

Musika eskolakoek kontzertua eskainiko dute igande honetan

ESTEBAN AROZENA

Udako ordu libre batzuk gauza berriak ikasten igarotzeko prest dudenek, bi ikastarotan izena emateko epea zabalik dute dagoeneko. Guraso Elkarteak, gaztetxo batzuen eskaerari erantzunez, xakean jokatzeko aukera eskainiko du. Interesatuen izenak jasotzen Joxemari Zubiri ari da. Gazte Asanbladaren eskutik dator bigarren ikastaroa, txalapartarena hain zuzen. Hainbat tokitan eginkizun horretan aritu den Arantxa Ansa aranoarra izanen da irakaslea. Azken orduko aldaketarik ez baldin bada, bi ikastaroak uztailean burutuko dira. Esan, baita ere, hilabete berean 30 bat neska-mutiko Hernaniko pisinetara joanen dire-



Larunbatean Euskal Herriko finalean ariko da Haizea taldea.

la egunero, igeritan behar bezala ikasi asmoz.

Musika eskolakoek kontzertua igande eguerdian

Aurreko urtekoen antzekoa baldin bada behintzat, egitan en-

tzungarria izanen da hurrengo igande eguerdian, ekainak 20, herriko Musika Eskolako ikasleek eskainiko duten kontzertua. Azken ikasturte honetan ahotsmusikan, txistuan, gitaran, pianoan, baxuan,

trikitixan eta kordionan ikasitakoaren berri emanen dute hogeita hamar musikari gaztek ordu terdi inguru iraungo duen emanaldian.

Musikaz ari garenez, aipatu beharrekoa da bezperan, larunbatean,

Bizkaiko Arrigorriaga herrian ospatuko den Euskal Herriko kantu txapelketaren finala, herriko eskolako ordezkariak zabala egonen baita bertan. Jakina den bezala, 7. eta 8. mailako ikasleek osatutako *Haizea* taldeak eta Maider eta Naiara bikoteak Nafarroako txapelketa irabazi zuen apirilean, eta horrek, larunbat honetako final haundian parte hartzeko aukera eman zien, gainerako herrialdeetako txapeldunekin kantatu eta lehiatzeko, alegia.

Ixxibi kanpinak zabaldu ditu ateak

Larunbat honetarako, ekainak 19, antolatu duen festarekin hasiera emanen dio Ixxibi kanpinak aurtengo denboraldiari.

ARESO

Herriko Etxea, plaza eta pilotalekua berrituak

Maiatzaren 30ean egin zen inaugurazio ofiziala


JUANA M^a SAIZAR

Berrikuntza eta moldaketa lanak egin ondoren, maiatzaren 30ean inauguratu ziren ofizialki Herriko Etxea, plaza eta pilotalekua. Lan hauek, Hirurteko Planaren barruan sartu dira eta 18,6 milioi pezetako aurrekontua izan

dute. Ekitaldian, herriko agintariek batera, Jose Luis Diez, Toki Administrazio Departamentuko zuzendari nagusia eta Beteluko Udaleko ordezkariak izan ziren. Meza, Agirre eta Lazkano bertsolarien saioa, hamaiketako eta afizionatuen arteko pilota partida izan ziren.

Kultur Egunak ekitaldiz beteak

Kultur Egunak burutu ziren ekainaren lehen asteburuan. Euskal Herriko tradizioa eta historiari buruzko solasaldia eman zuen larunbatean Jesus Mari Satrustegik. Gero, dantzaldia izan zen Modestorekin.



Apaiak bedeinkazioa eman zion pilotaleku berrituari.

Argazkia: Juana Mari

Biharamonean kalejira herriko trikitilariekin, hamaiketako, herriko gaztetxoaren arteko

pilota partiduak, bazkaria plazan, herriko dantzariak eta sokatira saioa izan genituen.

Guardia Zibilaren kuartela herriari bueltatzeko lehen pausuak eman dira

Horretarako akordioa hartu zuen Udalak maiatzeko batzarrean

JOSEBA AZPIROZ

Udalak, Koartela herriarentzat berreskuratzeko prozesua hastea erabaki zuen maiatzeko egindako batzarrean. 1902. urtetik Guardia Zibilak erabiltzen duen etxearen zehar, zehar, zehar...

bukatutzat emateko, bi hilabete lehenik jakinaraztea besterik ez dela behar jartzen du. Horri eutsiz, berreskuratzeko prozesuari hasiera eman zaio. Jakinarazi eta aipatutako epean uzten ez badute, epaiketarako demanda jarri beharko die Udalak.

1923 ibilgailu ditugu herrian

17,8 milioi pezeta jasoko ditu aurten Leitzako Udalak Ibilgailuengatik kobratzen duen zergarekin. Denetara, 1.923 ibilgailu daude herrian zentsatuak eta honela banatzen dira:


Motozikletak.....	60
Zerb. publikokoak.....	10
Turismoak.....	1.495
Traktoreak.....	55
Nekazal makinak.....	34
Ezinduen ibilgailuak.	10
Kamioiak.....	212
Erremolkeak.....	47

Igerilekuak

Aurten ere eguraldi txarra egin du igerilekuko denboraldiaren haserako egunetan. Kudeaketaz Sysna, S.L. enpresa arduratuko da aurten ere.

Gorritzaran auzoko festak


Urtero bezala, Gorritzarango festak San Pedoren omenez ospatuko dituzte. Aurten asteartearekin egokitu denez, aurreko igandera, hau da, ekainaren 27ra aurreratu dute festa eguna. Goizeko 10,30etako Mezaren ondotik herri kirolak (aizkoran, lasterka, harrijasotzen eta sokatiran) izanen dituzte. 2etan auzotarrek bazkaria egingen dute eta 5etan mus txapelketa jokatu da. Arratsaldeko 7etatik gauerdia dantzarako musika izanen dute eta atsedendian txokolatea. Txintxurrin txapelketaren hamahirugarren edizioa ere jokatu da arratsaldeko 8,30etan.



Autobidea arteko errepidea moldatzeko lanak hasi dira

Zenbait arazoengatik uste baino beranduago bada ere, Leitza eta autobidearen arteko errepidea moldatzeko lanak hasi berriak dira. Hau idazterakoan, seinaleak jarriak dira eta zuhaitzak botatzen hasiak dira.

Argazkiak: Joseba



Erraldoi berriak

Ikusi al zenituen erraldoi berriak? Dotoreak, ez da?



Leitzako Mandriladorak kalidade-ziurtagiria eskuratu du

Aresoko Eluseder poligonoan dagoen Leitzako Mandriladorak ISO 9002 kalidade-ziurtagiria jaso zuen ekainaren 3an. Hemeretzi lagunek lan egiten dute kartoi-tuboak egin eta papera manipulatzeko lanetan eta azkeneko urtean 310 milioi pezetako salmentak izan zituen. Enpresa 1984an sortu zen Leitzan eta handik Aresora mugitu ziren.



Okile tailerrekoen eskulanak

Ba al zenekien Okile tailerrekoak hainbat eskulan egiten eta saltzen dituztela? Eta ez bakarrik erakusketetan. Urte osoan ere, tailerretara joan eta erosi ditzakezu.

BAZTAN

Arizkungo San Juan bestak ekainaren 23tik 27ra

Kirikoketa eta txalapartarekin hasi eta zanbonbadakin akituko dira



Herriko beste-takoak ez badi-ra ere, bereziki Arizkunen egi-ten diren bi ospakizunen ar-gazkiak ageri dira: Iñauteri-astearteako sa-gar-dantza eta maiatzean ate-ratzen diren maia-erreginek.



Asteazkena, ekainak 23 San Juan bezpera

12etan besten hasmenta ematea, suziriek, kirikoketa eta txalapartarekin. 12,30etan txopo eta bandera goratzea herriko txistulariekin. 5etan sekulako apostue herritarren artean. 9etan San Juan suak. 10etan Baztan-zopak. 12etatik aitzine dantzaldia IÑAZKI taldearekin. 5etan ziztor-jatea.

Ortzeguna, ekainak 24 San Juan Egune

6etan ezkil-jotzea. 10etan argi-soinuak. 11etan Meza Nagusia. 12etan mutildantzaketa aperitifa. 5,30etan herriko plater tiraketa txapelketa. 8etatik 9etara kantaldia. 9etatik 10etara dantzaldia IÑAZKI taldearekin. 10etan mutil-dantza eta gaita. 12etatik aitzine dantzaldia IÑAZKI taldearekin. 5etan zinger-jatea.

Ortzirala, ekainak 25 Zikiro-jate Egune

10etan argi-soinuak. 11etan mus txapelketa.

2etan zikiro-jatea. 4etan SASTAKAI txarangarekin ostaturaz ostatu ibiltzea. 5etan haurrendako pailazoak. 6etan antzara-jokue. 8etatik 10etara dantzaldia LAIOTZ taldearekin. 10etan mutil-dantza eta gaita. 12etatik aitzine dantzaldia LAIOTZ taldearekin. 5etan gasna jatea. 5etatik aitzine Aitor D.J.a.

Larunbata, ekainak 26 Haurren Egune

10etan argi-soinuak. 11tan haur jokuak. 1etan haurrendako bazkaria. 3etan haur jokuak. 8etatik 10etara dantzaldia ATSEGIN taldearekin. 10etan mutildantzak eta gaita. 12etatik aitzine dantzaldia ATSEGIN taldearekin. 5etan zardin-jatea.

Igandea, ekainak 27 Azken Egune

10etan argi-soinuak. 12tan aperitifa. 5etan dantza jaialdia: mutildantza eta dantza jauzien eguna. Xiberoatik Urdiñarbeko dantzariak, Behenafarroatik

Arrola dantza taldea eta Lapurditik Oinak Arin dantza taldea; Nafarroa Garaiatik Luzaideko dantzariak. Gero dantzari baztandarren saioa -nahi duen guziak hartzen ahal du parte-. 8etatik 10etara dan-

tzaldia GORRAMENDI 10 taldearekin. 10etan mutildantzaketa gaita. 12etatik aitzine dantzaldia GORRAMENDI 10 taldearekin. 4etan txopo botatzea eta zanbonbada, bestak akitzeko.



Tel.: 948453410 • Fax: 948453378 • ARIZKUN

Patxarana eta likoreak:

- Patxaka
- Feijoa • Menta
- Erregaliza • Tea
- Kamamila anisarekin



ERRETEGIA

Espezialitatea parrillan egindako haragi eta arrainetan

• kindegia

Jatetxea



Polig. Ind. Ordoki Tfn: (948) 45 34 03 31713 ARIZKUN

Okindegian

- Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
- **Jatetxean**
- Menua eta karta (asteburuetan)
- Espezialitate parrillan erretako jakietan



Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labeen errea. Goxo-goxoa!

ARIZKUN zerrategia

- ↳ zerrategia
- ↳ Zurezko teilatuak

© 948 453 304 • Dantxarineako errep. • ARIZKUN



Traktore konponketa eta salmenta © 948 453425 • ARIZKUN

BAZTAN

Erratzuko San Pedro bestak ekainaren 28tik uztailaren 4ra

Uztailaren batean atsedena hartuko dute

Astelehena, ekainak 28
8etan besten hasierako su-ziria eta ezkil-jotzea. **9,30etan** baztan-zopak Albantzenean.

Asteartea, ekainak 29
San Pedro Egune

10etan argi-soinua txistulari eta herriko akordeolariekin. **11tan** Meza Nagusia, Baztango agintariak ere bertan izanen direlarik. **11,45etan** herriko plazan aureskua eta mutildantzak. **12,45etan** hameketakoa Herriko Ostatuan. **6etan** herritarren arteko Gynkana. **8etan** dantzaldia KIKI BORDATXO taldearekin. **10,30etan** mutildantzak Javier eta Juan Migel txistulariekin. **12,30etatik 4etara** KIKI BORDATXO taldea.

Asteazkena, ekainak 30
Haurren Egune

10etan argi-soinuak. **11tan** herri jokoak plazan. **12,30etan** japoniar bonbak. **1etan** tikiendako herri bazkaria plazan (bono-

ak salgai: 200 pta). **5etan** Xanti Antero magoaren saioa ikusgai. **7etan** tikiendako dantzaldia GORRAMENDI 10 taldearekin. **10,30etan** mutildantza. Ondotik su artifizialak. **12,30etatik 4etara** KIKI BORDATXO taldea.

Ortzirelie, uztailak 2
10etan argi-soinuak. **11tan** pilota desafioa Gorostapolon. **2etan** zikiro-jatea plazan (txartelak salgai ohiko lekuetan). Ondoren dantzaldia Joxe Angel akordeolariarekin. **10,30etan** Panpi Portugalen emanaldia Iparla ostatuan.

Larunbeta, uztailak 3
10etan argi-soinuak. **12etan** pintxo eta postre lehiaketa, animatzen diren guzientzat. **5etan** profesionalen arteko pilota partidek (afitxak aparte). Atsedenaldiran urdaiazpikoaren zozketa. **7etan** dantzaldia KETXU taldearekin. Gero, Etxeberria ahizpek eskainitako kantaldia.



Goitian, Erratzuko dantzari taldea. Beheitian, aspaldiko argazkian, mutildantzak plaza zaharrean.

Argazkiak: Manttoni eta M^a Carmen Auzki

12,30etatik aitzin dantzaldia KETXU taldearekin.

Igandea, uztailak 4

10etan argi-soinuak. **11tan** hasi eta egun osoz, Bizkargain fanfarrea karrikaz karrika. **1etan** herriko dan-

tzarien emanaldia.

5,30etan jaialdia Xorroxin Irratiaren omenez. Bertsolariak, Xalbador Ihidoi eta Amaia kantariak, Etxeberri ahizpa kantariak eta ETBk ekarritako emanaldiak.

8etan dantzaldia KETXU taldearekin. **10,30etan** mutildantzak. **11tan** rock kontzertua Zubipunta ostatuan.

12,30etatik aitzin KETXU taldea eta bestak akitzeko "Pobre de mi".

ttipi-ttapa

7.100 harpidedun
 24.000 irakurle

Zure publizitatea
 etxe xoko
 guzietan

☎ 948 631188



ZUBIPUNTA

OSTATUA

*Besta onak
 opa dizkizuegu*

☎ 948 453111
ERRATZU

BEREKO BENTA

ostatu • janaridenda • oroigarriak

Bokadilloak ematen dira

Izpegi • ☎ 948 453207 • ERRATZU



Ostatua

Herriko Plaza • ☎ 948 453118 • ERRATZU

IPARLA

OSTATUA

- Egunero bokata eta pintxo beroak
- Igandetan salda
- Giro ona

Aduana karrika
 ☎ 948 453153
ERRATZU

Gaztetxoendako ateraldiak prestatu ditu Kukux Aisialdi Taldeak

Uztailean Aritzakungo eskolara eta abuztuan Aurizberriko aterpera ganen dira

TTIPI-TTAPA

Kukux Aisialdi Taldeak, Balleko Udalaren laguntzaz uda honetarako 7 eta 11 urte bitarteko Gaztetxoendako ateraldiak antolatu ditu.

Uztailaren 20tik 22ra, hiru egun emanen dituzte Aritzakungo eskolan. Aritzakunen barna mendi ateraldiak, inguruko landaretza eta animaliak ezagutzeko ibilbide gidatua, errekan bustialdia eta bertze hainbat ekitaldiak egingen dituzte. Izen ematea Balleko Etxean egin behar da, horretarako mila duro ordainduz.

Abuztuaren 18tik 20ra, berriz, Aurizberriko aterpean egonen di-

ra hiru egunez. Handik Orreagara ateraldia, ondare historiko-kulturala ezagutzeko. Iratiko Oihanera ateraldia eta Urrobi errekan bustialdia egingen dituzte, bertzeak bertze.

Bi ateraldi hauekin, inguru berriak ezagutu, gaztetxoek autonomia jokaerak sustatu eta inguruarekiko jarrerak hobetzeko helburuak bete nahi dituzte.

Josune Iturzaetaren «Metak» iragarriko du Baztandarren Biltzarra


Josune Iturzaeta Barnó elizondarrak egindako «Metak» kartelak iragarriko du aurtengo Baztandarren Biltzarra. Josunek publizidade-grafikoa ikas-

ten du Korellan eta kartela ordenagailu bitartez egin du, iratze edo belar-metak oinarritzat hartuz.

Epaimahaia Itziar Mena eta Jose Antonio Cruz disenatzaileek, Camino Eseberri eta Fernan Gorostidi margolariek eta Baztandarren Biltzarrako Maxux Goñi eta Xabier Ripak osatu dute.

Argiteri publiko berria

Noaingo Montajes Electricos Feler, S.L. enpresak 29.780.194 pezetaren truke egingen ditu Amaiur, Azpilkuea, Erratzu, Elbete, Lekaroz, Irurita (Sorreatik Santxotenara) eta Zozaiako argi publikoen berritze lanak.



Nafarroako XIII. Bertso Paper Lehiaketa

Bertze urtetan bezala, aurtenera, Baztan Ikastolako ikasleek lehenengo sariak lortu dituzte Nafarroako XIII. Bertso Paper Lehiaketan. Eskualdeko kanporaketan hauen izan dira sarituak: 3-4. mailakoan artean, lehena Mirian Goñi eta hirugarrena Nahikari Amiano. 5-6. mailakoan artean, lehena Lourdes Elizegi, bigarrena Estitxu Arozena eta hirugarrena Itziar Iantzi. Nafarroan ere, Mirian Goñik bigarren saria lortu du bere bertsoekin eta Lourdes Elizegik, hirugarrena.

Irurritako mediku kontsulta berria

Osasunbideak 17 milioi pezetako dirulaguntza eman du Irurritako mediku kontsulta berria egiteko.

Igerilekuen ardura

Jose Luis Dussaubat Elizondon eta Mikel Dussaubat Lekarozen izanen dira uda honetan igerilekuetako arduradunak.

ARROPA DENDA



ERNE!
Udako arropetan aukera zabala



Pierresenea

OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • ☎ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI



ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiokarretera 3. Km
☎ 948 599 131 - URDAZUBI

Eskisaroi
jatetxea

Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

La Asturiana
ostatu • jatetxea

Tfnoa: 948 58 04 63
Santiago 51, ELIZONDO

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, ☎ 948 580939
ELIZONDO

UDAKO ARROPAK

Trajeak, soinekoak, konjuntxoak,
kamisetak, bainujantziak...

Konplementoak

Belarritakoak, eraztunak, gerrikoak,
oinetakoak, zapelak...

Baztanen...



LOREDENDA • GARDEN CENTER

ESTHER FUNERARIA

Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak •
Dokumentazioak
Beztitzeak, etab...

24 orduko zerbitzua

Eta Iruñean...



IRACHE TANATORIOA

Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54

Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 948580971 • **ARIZKUN**
Errepide Nagusia • Tfnoa: 948592200 • **NARBARTE**
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 948580668 • **ELIZONDO**

la 28 milioi liberako aurrekontua izanen du aurten herriak bortz arlotan banatuak

Herriko Kontseiluak elkarteeri 358.000 libera ematea erabaki du

ANA MARI, MARTINE ETA FRED

27.953.106,89 liberako aurrekontua bozkatu dute hautetsiek: bortz arlotan banatzen da aurrekontu orokor hori. Herriko aurrekontua da nagusia, 20.474.457,17 liberakoa izanen baita, horren barne sartzen dira herriko egituren zainketa, soldatak... Urarena 3.622.951,80 liberakoa izanen da, lezeena 3.598.913,74 izanez. Azkenean, hilarrirentzat 200.000 libera eta sozial arloarentzat 56.784,18 libera izanen dira.

Bertzalde, herriko kontseiluak elkarteeri

357.797,10 libera ematea erabaki du. Diru kopuru hori 51 elkarte (16 Sarakoak) desberdinen artean banatua izanen da. Elkarte gehienak ez baldin badire Sarakoak ere, euskal kultura, gizarte mailan edo kirol mailan kokatzen dire; Saratarrek horien eskaintzak baliatzen ahal dituzte. Sei arlotan banatuak izanen dire 357.707 libera horiek.

%24,32a kultura bultzatzen duten elkarteeri, hala nola Euskal Kultur Erakundea, Euskaltzaindia, TTPI-TTAPA edo Gure Irratia bertze hainbaten artean. Laguntzaren %19,13a doakio Sarako

Turismo Bulegoari eta %38,44a haurretaz arduratzen diren egiturei (eskolak...). Lan arloan ari diren Hemen elkarteak eta «Mission Avenir Jeunes» erakundeak %2,86a lortuko dute. %2,80a banatua izanen zaie gizarte mailan egiten duten hamazazpi egiturari hala nola Gurutze Gorria, Elbarrituen Elkarteak eta azkenik kirola bultzatzen duten elkarteek %2,34a erdietsiko dute.

Lizarrietan Oihan erreserba biologikoa sortzeko ikerketa

Herriko Etxeak, Lizarrietako alde ho-

rretan, oihan erreserba biologiko bat sortzeko, ikerketa bat egiteko baimena eman dio Oihanen Erakunde Nazionalari (ONF).

Erreserbahonen helburu nagusia, zuhaitz zaharrak eta hauen inguruan antolatu bizia- ren aberastasunaren zaintzea litzateke.

Herriko Etxearen arabera, proposamenek ez lituzkete, ez betiko laborantza, ez eta ihizia trabatu behar.

Etxola animale parke berria irekitzekotan dute

«Etxola», Sarako animale parke berria idekitzekotan dute

Kattin eta Martine Gerendiain saratarrek. Lizarietako bidean kokatu 2 Hektareako eremuan, 70 animale mota berezi baino gehiago ikusten ahalko dira, hemendik goiti, Gineako oilotik hasi, eta Bretaniako ardiataraino.

Gure partetik zorionik beroenak Gerendiainahizperi, gauza estimagarria baita herri- tarrek beren herrian lana sortzea. Aintz urtez!



San Josepe eskola pribatuaren ateraldia

Maiatzaren 27tik 29rat, hogeita hamar haur, 4 urtetik 9 urteraino, joan dira hiru egunez bidai bikain bat egitera, Valle d'Ossau-rat. Han gauza aintz egiteko aukera izan dute. Hala nola, bisitatu dituzte eztiaren fabrika, egurrezko jokoaren tailerra eta asmoa izan dute saiak eta ahuntzaren hazkunde ikusteko. Bidaiaren egitarauan, bazuten Artonoteko treina. gure San Josepeko haurrak ohartu dira ez dela bakarrik Larrungo treina! Hainbertze gauza berri ikusiz, segur ziren azterketa tiki bat izanen zutela itzultzean.



ABEGI EUSKALTEGIAK

SARAKO BARNETEGIA

**NOIZ: UZTAILAK 19-31
ABUZTUAK 2-14
16-28**

Euskaraz bizi 24 orduz

e-mail: abegieuskaltegiak.jalgi.com

943 46 46 55

KULTURA

Baztan-Malerreka-Bidasoa aldeko Bigarren Trikitixa txapelketa larunbatean hasiko da

Elizondo eta Doneztebeko kanporaketen ondotik, Lesakan izanen da finala

TTIPI-TTAPA

Larunbat honetan abiatuko da Elizondoko pilotalekuan Baztan-Malerreka-Bidasoa aldeko bigarren trikitilari txapelketa. Lehendabiziko kanporaketa hau arratsaldeko betan hasiko da. Bigarren kanporaketa San Pedro egunean, ekainaren 29an egingen da Doneztebeko pilotalekuan, herriko besten barrenean.

Final nagusia, azkenik, uztailaren 11n burutuko da Lesakan, hemen ere Sanferminetako

egitarauaren barrenean.

Joan den urtean hameka bikote aritu ziren txapelketan eta aurten goan bertze horrenbertze espero ditu, guttinez, Jone Elgorriaga antolatzaileak. «*Iaz, gehien bat Bortziriak eta Malerrekako trikitilariak izan ziren, baita Leitzaldeko batzuk ere. Aurten Baztanetik ere jendea apuntatzea espero dugu, han ere trikitilari aunitz baitaude.*»

Trikitilari gazteak plazaratzea da helburu nagusia.



ASCAT



MNA



ETXEBIZITZA ASEGURUA

Grupo Asegurador CAIXA CATALUNYA



zure etxebizitzako zaindaria

Zure etxebizitzan behar dituzun garantia guztiak dituzu gure etxebizitza aseguruan



Parrokia 21
Tel.-Fax: 948 450266
DONEZTEBE



AUTO ESKOLA

Saskaitz plaza
Tel.: 948 580 077
ELIZONDO

EZKONTZAK

Andres Burgete Etxandi eta Sonia Goienetxe Burkaitzea, Elbete eta Elizondokoa, maiatzaren 29an.
Inaxi Tapia eta Beñat Lekuona, Sarakoak, maiatzaren 14an.



Julian HERNANDEZ BERGARA
1. urteurrena (VI-25)

*Gogorra da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko
baina bizi garen artean
ez zaitugu ahaztuko*

MARIA ETA ARANTXA

JAIOTZAK

Maria Gastarena Ansalas, Oronoz-Mugairikoa, maiatzaren 25ean.
Peio Angel Telletxea Iribarren, Doneztebekoa, maiatzaren 26an.
Baptiste Elizagoien, Sarakoa, maiatzaren 11n.
Baptiste Etxeberri, Sarakoa, maiatzaren 30ean.

HERIOTZAK

Tomasa Aberrebere Alkasena, Zigakoa, maiatzaren 31n, 76 urte.
M^a Josefa Lazkano Arrieta, Arantzakoa, ekainaren 6an, 74 urte.
Juan Martin Sukunza Barriola, Leitzakoa, maiatzaren 13an, 82 urte.
Jose Dorremoz Sarratea, Berakoa, ekainaren 4an, 69 urte.
Maria Josefa Lazkano Arrieta, Beran, ekainaren 6an.
Aña Berruet, Sarakoa, maiatzaren 29an, 89 urte.
Marie Andrée Bur, Sarakoa, ekainaren lean, 83 urte.
Tita Etxeberri, Sarakoa, ekainaren lean, 73 urte.
Carmen Etxeberria Iturbide, Igantzikoa, ekainaren 2an, 80 urte.
Eusebia Goienetxe Matxikote, Igantzikoa, ekainaren 7an, 88 urte.

ZORIONAK!


Oparia ematen
lehenak
izan nahi
dugu



Haurtxoa sortu eta etorri Iruneko Kuxara berehala. Aldatzeko saskitxo hau, haurraren garbitasunerako produktuekin bete, emanen dizugu.

Ez ahantzi familiaren liburuxka!

IRUÑEKO KUTXA



Julian HERNANDEZ BERGARA
1. urteurrena (VI-25)

*Gogorra da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko
baina bizi garen artean
ez zaitugu ahaztuko*

Zure lehengusu-lehengusinak
Amagoia, Maider eta Fernando



Blas
GOIZUETA SARRATEA
1. urteurrena (VI-25)

*Umila eta ixila zinen
harrokeririk ez zendun
zure lagunei izan zenion
behar hainbeste maitasun
hizkera oso leuma eta
hitzak neurrian zenitun
izakera horrek bizitza hontan
Blas zu haundi egin zintun.*

*Denbora aurrerantz doa
urte bat bada jadanik
zuek joan zinetela
ihesi gure artetik
gertaera triste hura
etzaigu joaten burutik
negar malkoak sortuz
irripararen ondotik
akaso guri begira
egongo dira zerutik
esanaz «gure kuadrillak»
ez gaitu ahanzten oraindik
sekula ez zaituztegu
inork eduki ahanzturik
zuek utzitako hutsa
ez baitago betetzerik.*

Zuen koadrilla



Julian
HERNANDEZ BERGARA
1. urteurrena (VI-25)

*Mutil alaia ta jatorra
asko ez bezalakoa
borondatea soberan eta
oso bihotz onekoa
zure lagunen laguna zinan
umoretsu ta gozoa
askok izan nahi genduke hemen
Julian zure antzekoa*

DATUAK.....

- 1 Patxi Vila beratarrak 23 urte ditu eta afizionatu mailako Caja Rural txirrindulari taldean ari da.
- 2 Nafarroako Itzulian hirugarrena izan zen sailkapen orokorrean eta, gainera, lehendabiziko nafarra. «Orain arteko lorpenik haundiena da eta gainera etxean» dio.
- 3 Profesional mailan aritzeko moduan dagoela uste du. «Joan den urtean proba egin nuen eta ez zen horrenbertzekoa izan».
- 4 Jon Bru beratarra eta Unai Barazabal azpilkuetarra ere berekin batera daude Caja Rural taldean.

👉 **Patxi VILA** Berako txirrindularia

“Nafarroako Itzulian lortutako hirugarren postua izan da orain arteko markarik onena”

«Nafarroako lehendabizikoa izatea nire kalkuluetan zegoen, baina sailkapen orokorrean hirugarrena izatea ez, inondik ere» dio Patxi Vila beratarrak. Izan ere, bere lehendabiziko parte hartzea zen Nafarroako Txirrindulari Itzulian eta duela hilabete terdi, Granadan egindako lasterketa batean erori eta operatu egin behar izan zuten. «Konpetizio falta haundia nuen eta nola nengoen ikustera joan nintzen. Eguneak egunera hobekiago nengoen eta azkenean, podiuma...». Hasierako etapa luzeetan erritmoa hartzen joan zen, lasai-lasai, eta Bagordiko etapan hamekagarren postuan akautu zuen. Etapa nagusian, berriz, hamarlaguneko taldearekin eskautu zen. «Neretzako etapa a proposa zen, luzea eta mendia gehiagorekin». Horiek dira bere ezaugarri nagusiak.

«Txirrindulari diesela naiz, txispa haundirik gabekoa. Horregatik sprintean ezik bertze edozertan ongi xamar moldatzen naiz, baina batez ere etapa eta mendia luzeetan».

Sailkapen orokor batean izandako postu onena izan da Nafarroako Itzuliarena, baina lehendik ere zenbait lorpen eskuratutako ditu Vilak. «Itzuli ttikitana eta, Santanderren duela bi urte edo Palentzian iaz emaitza onak izan ditut: erregulartasuna eta etapa nagusia irabazi nituen Palentzian eta bosgarrena izan nintzen sailkapen orokorrean. Itzuli haundi batean, halere, Nafarroakoa izan da posturik onena eta gainera, etxean eta zure jendearen aitzinean poz haundiagoa ematen dizu».

PROFESIONALETARAKO PAUSUA BEGIBISTAN

Patxi Vilak ez du

► **“Hogeita bat eguneko itzuli batean nahitaez zerbait hartu behar da errekuiperatzeko. Errendimendua hobetzeko ez bada –hori dopina baita– guttienez mantentzeko.”**



Etapa luzeetan ongi moldatzen naiz. Sprintean ezik, txirrindulari erregularra naiz leku gehienetan.

atsedena hartzeko asti haundirik. Asteburu honetan, Nafarroako txapelketan parte hartu du Altsasun, asteartean Burgoseko Klasika batean aritu zen eta uztaile hasieran Bizkaiako Biran aterako da. Taldeko zuzendariak adierazi duenez, Patxi profesionaletarara pasatzeko moduan dago. Beratarrak ere bere burua prest ikusten du. «Beraiekin korritzeko bai, baina aitzinean ibili edo karreirak irabazteko oraindik

ez». Profesionaletan, Italiako Giroan adibidez, dopinaren afera ahoz aho dabil eta Vilak ez du bere iritzia gordetzen: «Guk sei egun segidan korritzen ditugu, etapa motzagoak eta ez hain fuerteak eta leher eginda akautzen dugu. Imajina ezazu 21 egun, etapa luzeago eta gogorragoekin! Zerbait hartu behar da errekuiperatzeko. Ez dut erraten dopina izan behar denik, baina zerbait hartu behar dela bai».

TESTUA:
AITOR AROZENA

Denboraldi dexentea egin dute eskualdeko futbol taldeek

- Berako Gure Txokoak mailaz igoitea lortu du
- Baztanek Hirugarren mailara itzultzeko aukera du, hau idazterakoan

Kirol denboraldia akautzen ari da eta urteko balantzea egiteko tenorea ailegatu da. Futbolearen, orokorrean denboraldia ona izan da eskualdeko talde nagusientzat.

Berako Gure Txokoak Gipuzkoako Eiregionaleko bigarren mailatik lehen mailara igoitea lortu du, honela iaz galdutako maila berreskuratu.

Baztan taldeak ere esku-eskura du Hirugarren mailara itzultzea. Nafarroako Preferente ligan bigarrena izan zen eta, hau idazterakoan, igoera promozioaren bigarren partidua jokatzea zuen Giltxaurdin. Lehendabizikoan, Errioxan jokatutakoan, bana berdindu zuen Agoncilloren aurka. Hurrengoan emanen al du gu igoeraren berri!

G i -



Futbol haundikoak ez ezik, Gure Txokoako areto-futbol taldeak ere mailaz igoitea lortu du aurten.

Argazkia: Aitor

puzkoako Preferente mailan, azken partidura arte borrokatu behar izan du Beti Gaztek kategoria eusteko. Azkenean, hamaugarrenak izan dira lesakarrak. Leitzako

Aurrerak erdi aldean akautu du Erregionaleko lehen mailan. Heldu den denboraldian, futbol zelai berria estreinatuko dute seguruenik.

FUTBOL TIKIAN ERE GURE TXOKOAK GOMI

Areto futbolearen eskualdeko hiru ordezka-

ri izan ditugu Gipuzkoako bigarren mailan. Goizuetako Umore Ona eta Lesakako Beti Gaztek erdialdean akautu badute ere, Berako Gure Txokoak denboraldi ederra burutu du. Bigarrena izan da eta heldu den urtean lehen mailan ariko da. Zorionak!



❖ **Jon Bru garaile**
Afizionatu mailako Caja Rural taldean ari den Jon Bru txirrindulari beratarra nagusitu zenekainaren 6an Ataunen burututako San Martin proban. Baque taldeko Iban Mayorekin egindako sprintea gailendu zen beratarra. Proba hau Euskaldun Sarirako baliagarria da.

❖ **Euskadiko atletismo txapelketa**
Rafa Maritxalar lesakarrak eta Beintza Labaiengo Aitor Mariezkurrenak zilarrezko dominak eskuratu dituzte Euskadiko atletismo txapelketan. Lesakarra bigarren izan zen 1.500 metroan (4.07:91) eta labaindarra jabalina jaurtiketan (55.76 m).

❖ **Amaita Lujanbio**
korrikalari goizuetarra bigarrena izan zen junior mailako Espainiako txapelketan, 3.000 metroko proban (10.27:73).

Udane Cabeza leizarra txapeldun Gipuzkoako Eskolarteko estilo orotako igeriketa txapelketan

Udane Cabeza Zubillaga leizarratxapeldun suertatu zen alebin mailan pasa den maiatzaren 15ean burututako Gipuzkoako eskolarteko igeri estilo orotako txapelketan. Hamabi urteko leizarrak ehun metroko probak

egin zituen lau estilo ezberdinetan. Gero, denbora guziak gehituz berea izan zen markarik onena. Proba hau urtero egiten da Gipuzkoan dauden igeriketa klubaren artean eta Udane, Tolosako Samaniegoren izenean parte hartu zuen.

Modu honetan, Leitzako igerilariak azkeneko bi urte hauetan bi aldiz irabazi ditu Gipuzkoako eta Nafarro-

ako txapelketak. Honen ondorioz, aurten, uztailaren hasieran Azpeitian jokatuko den Euskal Herriko txapelketarako gutxieneko denbora edo minima egin du Udane eta Espainiako txapelketan sartzeko segundu bakar batera dago.

Eskualdean igerileku estalirik ez badago ere, Udane Cabezak Tolosakoan entrenatzen du guzti partean.



AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

DONEZTEBE

► **Ekainaren 25etik 30era** 24. orrian.

ERRATZU

► **Ekainaren 28tik uztailaren 4ra**

ARIZKUN

► **Ekainaren 23tik 27ra**

GORRIZTARAN

► **Ekainaren 27an**

SALDIAS

► **Ekainaren 24tik 27ra**

SENPERE

► **Ekainaren 25etik 29ra**

KONPROMISO EGUNA

ARIZKUN

► **Ekainaren 25ean**

Arratseko 8etan enkar-telada plazan.

► **Ekainaren 25ean**

Bortzirietako Herri Eki-menak antolatuta Lesa-katik Cuencara (Iñaki Fagoaga dagoen gar-tzelara) autobusa ateri-ko da ordubatak alde-ra. Izena emateko beti-ko tokietan, edo 948 627 597 telefonoan.

GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tf.ora. deitu behar da

► **Ekainaren 14tik**

20ra Eixalar, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), eta Goizueta.

► **Ekainaren 21etik**

27ra Arantza, Ituren, Elizondo (Iturralde), Lei-tza eta Goizueta.

► **Ekainaren 28tik**

uztailaren 4ra Lesa-ka, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

AGENDA PRAKTIKOA

TELEBISTAKO TXOKOA

ttiipi-ttapa telebista

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	ORTZEGUNA	ORTZIRALIA
13:00	Herriz-herri (errep.)	Berriak (errep.) Jokoa Solas	Berriak (errep.)	Berriak (errep.) Bidegurutzean	Berriak (errep.)
21:00	Berriak	Berriak	Berriak	Berriak	Herriz-herri
21:30	Jokoa Solas		Bidegurutzean		Herriz-herri



Doneztebeko San Pedro bestak TTIPI-TTAPA TELEBISTAN

Orain arte TTIPI-TTAPA TELEBISTAREN ikusle fidelak direnek badakite bestetan ez dutela bestarik hartzen telebistako ka-marek. Txupinazioa dela, kontzertuak edo migattuak direla, giroa bero-bero dagoen tokian hantxe egoten dira, gero zuek etxeetan eguneko irudirik politenak patxada ederrean ikus-teko. Doneztebeko bestetan ere, ekainaren 25etik 30era, ez dute hutsik eginen, eta elkarrizketaz, bideoklipez eta musi-kaz betetako programa berexia eskainiko da arratsero.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 4.000 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 161 pta./li-loa.
- **Zerramak**: 85 pta./kiloa, bizirik.




❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
 - **Idixkoak:** Pta/kg. Kanal
Extra530
1.koa500
2.koa470
 - **Urruxak:** Pta/kg. Kanal
Extra540
1.koa520
2.koa480
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze tikiak** (15 egun ingurukoak):
 - **Nabarrak:** urruxak 15.000 eta idix-koak 28.000 Pta.
 - **Mestizoak:** urruxak 30.000 eta idix-koak 40.000 Pta.
 - **Behi zaharrak:**
Behi nabar gizona: 350 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 380 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

Liburuak



«Agirre zaharren kartzelaldi berriak»

Koldo IZAGIRRE
ELKARLANEAN

Errealitatea eta fikzioaren muga kokatzen da Koldo Izagirre-ren nobela hau. Garteletako errealitate gordinarean hainbat aurpegi ezagutarazten dira, baina aldiberean, fikziozko pertsona bat da protagonista: Agirre zaharra, gartzelaz gartzela dabilen borrokalaria nekaezina. Baina Agirre ez dute espetzez aldatzen, ez, bera aldatzen da bere borondatez. Kutzare baten laguntzaz kanpotik barrenerako

tunelak egiten ditu aitaxi honek. Espainiako garteletan euskal preso bakar bat gelditzen den bitartean, gainera, euren ondoren egonen dela zin egina du agure kaskagorrak. Gartzelarekin maitasun-gorrito harreman bitxia du protagonistak. Aipagarria da Izagirrek presoen ahotan jarri duen argot berezia, ijitoen erromintxelatik hartua, eta baita hitzak bihurtuz egiten dituen joko berexiak ere.

Etxebizitza erosten (eta III)



tipi-ttapa tb

Batzutan etxebizitza oraindik akitu gabe dagoelarik erosi ohi da. Kasu hoietan eroslea babesteko hainbat lege daude.

Etxebizitza erosteko orduan saltzaileek eman behar dizkiguten argibide eta agirietaz aritu gara azken bi aleetan. Oraingo honetan, etxearen balioaz eta ordaintzeko moduz solastuko gara.

Lehenik eta behin, salneurria eta ordaintzeko argibide zuzenak eman behar dizkigute, hala nola etxebizitzaren eta gainerako zerbitzuen prezioa, BEZa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga; ordaintzeko modua, atzeratutako diru-kopuruak, epemugak eta interesak. Kreditu-eragiketa batean kontsumitzailearen subrogazioa aurriztatu bada –hau ez du garrantzirik onartu behar–, notarioaren datuak, Jabetzaren Erregistroaren eta etxebizitza bakoitzari dagokion hipotekaren arduragatutako behar dute. Horrez gain, atzeratutako diruarengatik erosleak dituen bermeak ere bai.

Batzutan etxebizitza oraindik akitu gabea dagoelarik erosi ohi da. Erosleak ordaintzen duen diru-kopurua bermatzeko, legeak hainbat neurri ezartzen ditu: saltzaileak, alde batetik, aseguru-poliza edo banku-abal baten bidez bermatu behar du emandako

*Proiektua
onartzerakoan
aurrikusi ezin ziren
berrikuntzak egin
behar badira,
erosleari jakinarazi
behar zaio, eta
honek onartu edo
deuseztatzeko aukera
izanen du orduan.*

dirua eta %6ko interesa urteko. Bertzetik, erosleak aurretik ordaintzen duen dirua horretarako propio ireki duen banku-kontu batean sartu behar du. Saltzaileak, kontratuekin batera abalaren kopia bat eman behar dio erosleari.

Eraikuntza proiektua onartzerakoan aurreikusitako ezin ziren berrikuntzak egiten badira (prezioa garestituz), erosleari jakinarazi behar zaio, honek onartu edo deuseztatu dezan.

Azkenik, etxea egiten ari diren bitartean moldaketak eginen balira, berrikuntzaren inguruan behar bezala dokumentatu behar gaituzte, edukia, prezio aldaketa eta eskuratzeko eguna idatziz azalduz.

IRATXE KONTSUM. ELK.

MENDI IBILALDIAK

BAZTAN

► Ekainaren 20an

Balle guzian barna herriz-herriko ibilaldia. Baztango Mendigoizaleak.

ERAKUSKETAK

BERA

► Ekainaren 20a arte

"Euskal Herriko akuarelak". Kultur Etxean. 18etatik 21etara.

GAUPASAK

ZUGARRAMURDI

► Ekainaren 20an

Zugarramurdiko gaupasa. Kaos Etiliko taldearen kontzertua izanen da.

SENPERE

► Ekainaren 26an

Su Ta Gar eta Kukumiku. Herriko besten barrenean.

BERTSO SAIOAK

SUNBILLA

► Ekainaren 20an

Bertso saioa pilota plazan: Sebastian Lizaso, Estiñu Arozena, Xabier Silveira, Iñaki Murua, Andoni Egaña eta Bittor Elizagoien.

DISKAK



«El catador de vinagre»

KOMA

GOR

Iruindarrek hirugarren diskoa ateratu dute udaberri honetan, eta dagoeneko ari dira zuzeneko emanaldietan abesti berriak jo eta jo. Musikalki "Koma" eta "El infarto" diskoen norabidetik ez dira batere urrundu disko honetan, abesti indartsuak baitira nagusi. Hala ere, berrietasun gisa aipatu daiteke taldearen lehen balada egin dutela, "Deprimido singular" izenekoa.

Dena den, gainerakoan, orain arteko musika estilo berdina atxiki dute, metal gordina, nahiz eta abesti batzutan instrumentu berriak sartu frexkotasan pixkoba emateko. Errate batera, txalaparta doinuekin hasten da diskoa, eta "Bienvenidos a degüello" kantuan teklatuak eta haizezko tresnak sartu dituzte. Hauxe duzu aurtengo udan gehien adituko den diskoetako bat, dudarik gabe.

BERTSO HOP

BILINTX MEGADENDA



www.jalgi.com/megadenda
E-mail: bertsohop-bilintx@jalgi.com

Colón pasealekua, 8
20302 IRUN
Tel. 943 631 726
Fax. 943 635 489

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin), 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapa iragorri faxez edo postaz.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko
Iparraldetik 00-34-

948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

ADOS

IRURITA.

- Lur eremu eraikigarria salgai.

☎ 948 451 841

GOIKO SL

LEITZA. Pisu bat salgai.

LEITZA. 25 m²ko solairuar-
tea salgai. Bulegoa jartzeko
egokia.

☎ 649 476 615 • 948 510 346

ARANTZA. Pisua salgai. ☎
948637050 (lan orduetan).

ORONOZ-MUGAIRE. Pi-
sua salgai. Mobeztatua. ☎
948 306 598.

ELGORRIAGA. Pisua sal-
gai. 100 m²koa + 31 m²ko
ganbara. Kalefakzioa eta
gutziz hornitutako sukald-
dea. ☎ 948450786 (gaue-
ko 8,30etatik aurrera).

IRURITA. 90 m²ko pisua
salgai. 15 m²ko ganbara eta
26 m²ko garagea eta kale-
fakzioa. Dena kanpoalde-
ra. ☎ 948 452 154 (arratse-
ko 8etatik goiti).

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

ADOS

- Eskaera handia
dagoenez, bor-
dak, baserriak,
lur-eremuak,
bajerak etab.
erosi nahi dira.

☎ 948 451 841

ETXEBIZITZAK

103 ERRENTAN EMAN

BENIDORM. Apartamen-
tua errentan emateko, Le-
vante hondartzan. Ekaina
etauztailan. ☎ 943626622.

BERA. Pisu berritua erren-
tan emateko Mugaldea 5.-
ean, Alzate karrikaren on-
doan. Mobeztatua eta eki-
patua. 3 gela, sukaldia, ko-
muna eta sala. ☎ 948 630
959.

GARAJEAK/LOKALAK

107 SALDU

LESAKA

Denda salgai

Herrierdi-erdian, martxan
dagoen janaridenda tras-
pasatzen da. 70 m².
Informazio pertsonala.

☎ 929 010 790 (arratsaldetan)

ARESO. Pabiloia salgai,
prezio onean. ☎ 948 510
346.

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

LEITZA. Bajera bat (pres-
tatua) errentan emateko.
Mendizabal tabernaren au-
rrean. ☎ 948 510 167.

GARAJEAK/LOKALAK

110 ERRENTAN HARTU

BERA. Trastero bat erren-
tan hartuko nuke. Ez du
handia izan beharrik. ☎
948 631 336 (arratseko
8etatik 10etara).

LURRAK/ORUBEAK

112 SALDU

GOIKO SL

LEITZA. Terreno batzuk
salgai dauzkagu.
Horietako batean etxe bat
egin daiteke.

☎ 649 476 615 • 948 510 346

LANA

301 ESKARIAK

Ezkontza elizkizunetan
kantatzen dut (Ave Maria,
Panis Angelicus, e.a.) ☎ 948
610 697 (Maite) Gaeuz dei-
tu.

Aulkiak konpontzen dira
Malerrekan. ☎ 948592 136.

Lan eginen nuke udan. ☎
948 615 035.

Neska batek lan eginen lu-
ke arratsaldetan, Donezte-
be eta Elizondo inguruan.
☎ 948 450 526 (gaueko
9etatik goiti).

Bi neska eskaintzen dira
haurrak zaindu edo etxeko
lanak egiteko. Interna mo-
duan edo egunero joan-eto-
rria eginez. Bortzirriak, Irun,
Malerreka edo Iruñea al-
dean. ☎ 948 450 670 (utzi
mezua).

Neska batek lan eginen lu-
ke etxeko lanetan edo ume-
akzaintzen. ☎ 948450928.

LANA

302 ESKAINTZAK

KULTURKARI

Lan eskaintza

ZUZENDARI
KOMERTZIALA
BEHAR DA

Baloratuko da:

- Eskualdea ezagutzea.
- Salmentan esperientzia.
- Antolaketa kapazitatea.
- Marketing eta enpresa
administrazioan ezagu-
tza.
- Autoa izatea.

Bidalit Curriculumak
lehenbailehen helbide
honetara:

KULTURKARI
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA

Beran emakume euska-
duna behar dugu haurrak
zaindu eta etxea garbitzeko.
Ordutegia: 9etatik 17etara.
☎ 943 398 286 (goizez).

Ibardinen lan egiteko kaje-
ra behar dugu. Astean egun
bat besta eta igande bat h-
labetean. Frantsesa ulertze-
a beharrezkoa da. Ordute-
gia: (8etatik arratseko 7eta-
ra). ☎ 619 829 289.

Esperientziadun neskaedo
emakume bat behar dugu
ostatu batean lan egiteko.
☎ 948 450 491.

Bera. Euskaraz dakien
emakume bat behar dugu
astelehenetik larunbatera
haurra zaintzeko. Ordutegi-
a: goizeko 8etatik arratsal-
deko 6etara. ☎ 948630532

Pertsona arduratsua ete
esperientziaduna behar da
ostatuan sukalde eta ba-
rran lan egiteko. Ekaina,
uztaila eta abuztu erdia. ☎
948 631 428.

Esperientziadun sukald-
ria behar dugu. ☎ 948 627
509.

ZERBITZUAK

205 ZURGINAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Jose Miguel Errandonea

Klase guztietako

zurgin lanak

Osiña autoba ☎ 948-634068 • ARANTZA

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Yamaha XT 600 salgai. 88. urtekoa. Egoera onean. 185.000 pta. ☎ 948 631 119 (gauetz).

R-11 salgai, diesela eta metalizatua. Oso egoera onean. Interesatuek deitu ☎ 948 581 044.

Renault Express salgai. NA-AJ egoera onean. ☎ 948 631 330.

MOTORRA

502 TAILERRAK

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Corsa GS, Renault 19 Diesel, Seat Panda, Clio Diesel eta VW Golf TD.

Suzukiak: Vitara eta Samurai aukeran.

BERABI tailerrak

☎ 948 631 445 • BERA

Nissan Vanette C-5, Ibiza D, Mercedes 190, Nissan Primera 2.000 SLX, Terrano I (5 urte).

KOTXE BERRIAK

BOAN TAILERRA

CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 948 63 06 23 • BERA

FRAIN TAILERRAK

«Peugeot 205 GTX, Ford Orion 1.6 Ghia, C15 D, R-5 GT Turbo, R-11 D...»

☎ 948 63 75 25 • LESAKA

ANIMALIAK

601 OPARI EMATEKO

Katakumeak opari emateko. ☎ 948 637 891.

ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

Zakurra salgai, Husky siberiarra eta artzai zakuralemanaren arteko nahasketa, hamar bat hilabetekoa. Dotorea eta umila. ☎ 948 514234.

Hiru zakurkume, sabueso arrazakoak, salgai. Bi hilabete dituzte. ☎ 948 637 127.

Basurde-ehiziko lau zakur eme salgai. Hilabete terdikoak, grifon eta sabueso nahasketa. ☎ 948 450 533.

8 behi salgai Donamariako Igurin auzoan. Nabarrak dira, onak. ☎ 948 450 101.

Sei behi eta bi miga, mendiko larrebehiak, salgai. ☎ 948 637 866.

Bi urteko pony arra aldutuko nuke bertze pony eme edo ar batengatik. ☎ 943 621 424.

ANIMALIAK

603 KLINIKAK

ALBAITERITZA KLINIKA

Txertoak, analisiak, kirurgia, pentsuak eta osagarriak

☎ 948631362 • Legi 13 • BERA



DENETARIK

701 GALDU/AURKITUAK

Apirilaren 5ean artzain zakur bat faltatu da Biriaturtik: arra, xuria, buztanik gabea eta lau urte terdikoak. Lagun izena du. Norbaitek bildua balitz, otoiztua da deitzera: ☎ 05 59 20 61 84 (Pierre).

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Armario bat eta mesanotxe bat salgai. 8.000 pta. ☎ 948 631 338.

Bi kalentadore ttiki (5 litrokoak) salgai. Berriak, gutti erabiliak. ☎ 948 630 885 (goizetan).

Segadora erosiko nuke. ☎ 948 631 345 edo 948 631 121.

HARREMANAK

801 AGURRAK

Alkaiagako Saioa Seineri: noizko muxua? Larunbatan ludotekan arratsaldeko 6etan. Gogoratu, maite zaitut.

Zigako Ainhoa Magirenari zorionak ekainaren 7an 15 urte bete dituelako. Segi beti bezain alaia.

Arraiozko Ane Oteizari: zorionak ekainaren 20an 15 urte beteko dituelako. Segi beti bezain alaia.

Leitzako Judith Mariezkurrenakekainaren 10ean bete ditu urteak. Zorionak zure familiaren partetik, bereziki Oinatz eta Birjiniaren partetik.

Mikel: aitatxo urruti dago, baina asko maite zaitu.

Irungo Ioseberri: Flauta kontzertua entzuteko irrikitangaude, entzun, eh?. Ea noiz gelditzen garen Behobian erosketak egiteko. Gaueko langile ohiak.

Iosebe Aragon Ibarri: Zure urteak beste trago oraindubehardiguzu. Oparitxo bat dugu zuretzako, kontuz irekitzerakoan. Zorionak poxpolina. Gaueko langile ohiak.

Ttipi-ttapako Mikel eta Jon: oso onak zaudete, ia noiz ezagutzen garen hurbiletik. Zuen admiradorak.



Joxepa LAZKANO ARRIETA

1926-03-19

1999-06-06

BERA



Ez agurrik, ez adiorik
gu guzian artean
beti irauten duzu bizirik
Zure senideek




Rafael Pombar Sainz

BAZTAN-BIDASOAKO ENPRESEN
AHOLKULARITZA INTEGRALA

Eztegara, 8 - behea • BERA

☎ 948 630201 - Faxes: 948 630255



BORTZIRI UNSION ANAIAK sukalderako altzariak

ERAKUSKETA

Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxes: 948 637 266

KULTURKARI

Inprenta lanak

- Kartelak
- Boletok
- Faktura taloak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

☎ 948 63 11 88



URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeo, bidali sobrea zure helbidearekin.

OHARRA:
Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilu
igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira argitaratuko.
A azkia itzultzea nahi baduzue sobra bat eta helbidea bidali.



Oier Olaia eta **Yanci Ordokik** ekainaren 19 eta 30ean beteko dituzte 10 eta 6 urte. Zorionak aita eta amaren partetik.



Oihana Etxeberria aranztarrak urtea beteko du ekainaren 22an. Zorionak eta muxu handi bat anaia Ibai eta familiaren partetik.



Aurelio Alvarez Arburuak ekainaren 21 ean 10 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Eugenio Mihura zugarra-murdiarrak 22 urte bete ditu maiatzaren 22an. Zorionak. Orain zer? Karrera akaututa neskak barra-barra!



Aitor Garmendia beratarrek ekainaren 11 n 6 urte bete ditu. Zorionak etxeko-en partetik eta muxu handi bat.



Joseba Garmendia beratarrek ekainaren 17an 9 urte bete ditu. Zorionak gure bolita maite-ari, amatto, attatto, Xabat eta lehengusuen partetik.



Markel Zapain Lasak ekainaren 13an urtea bete du. Zorionak gure bolita maite-ari, amatto, attatto, Xabat eta lehengusuen partetik.



Mari Corori zorionak ekainaren 13an urteak bete dituelakoz. Muxu handi bat Sunbillako familiaren partetik.



Eneko Herreri ekainaren 13an 2 urte egin dituelako. Muxu handi bat familia guziaren partetik.



Ixabel Arretxea sunbeldarrari zorionak maiatzaren 13an urteak bete dituelako. Muxu handi bat Janire, Xuban eta familiaren partetik.



Janire Apeztegia sunbeldarrari zorionak maiatzaren 12an 3 urte bete zituelako. Muxu handi bat guraso, Xuban eta familiaren partetik.



Izaskun Agara beratarrek ekainaren 9an 8 urte bete dituzte. Zorionak pottoka, attatto eta amattoren partetik.



Mikel Agara beratarrek 8 urte beteko ditu ekainaren 9an. Zorionak pottoko, attatto eta amattoren partetik.



Julen Oteiza Almandoz aranztarrak ekainaren 21 ean 7 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.



Ana Iriarte beratarrek urteak bete ditu ekainaren 7an. Urte askuan.



Etxabe eta Amaiak urteak bete dituzte ekainaren 3 eta 19an. Urte askuan.



Julen Telletxea Perugorria exalartarrak ekainaren 16an urtea bete du. Zorionak ataxi eta izebaren partetik.



Goretti Zubillaga Goñi leiztarrak ekainaren 18 urte bete ditu. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik, gure pandero joleari.



Jokin Rodriguez Larretxea lesakarrak ekainaren 20an 33 urte beteko ditu. Zorionak 'Betzuk' zure lagunaren partetik. Aunitz urtez.



Ana Trigueros lesakarrak ekainaren 20an 33 urte beteko ditu. Zorionak 'Betzuk' zure lagunaren partetik. Aunitz urtez.



Eva eta Luismi Rebollo Garaia lesakarrak ekainaren 6an eta 20an 25 eta 27 urte beteko dituzte. Zorionak familiaren partetik.



Jaione Jauregi beratarrek 14 urte bete ditu ekainaren 9an. Zorionak koadrilaren partetik.



Julen Telletxea exalartarrak ekainaren 16an urtea bete du. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Ixaso Etxabide Sagarazu lesakarrak ekainaren 10ean bete ditu 11 urte. Zorionak familia guziaren partetik.



Inigo Azkarate Sebastian beratarrek 2 urte bete ditu ekainaren 12an. Zorionak aita, ama eta aitabxien partetik.



Oinatz Mari-ezkurrena Balda leiztarrak 3 urte bete ditu ekainaren 9an. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Idoia Perurena urdazubitarrak 20 urte beteko ditu ekainaren 17an. Zorionak eta segi beti bezain alai. Berako lehen-gusuen partetik.



Iratz Udaeta Zubieta beratarrek 3 urte beteko ditu ekainaren 24an. Ander, Arantzeta eta Unairen partetik, aunitz urtez, sorgintxo!



Iratxe Gamio aniztarrak 4 urte beteko ditu ekainaren 20an. Zorionak eta 4 muxu, aita, ama eta batez ere Gabonen partetik. Ongi pasa.



Naiara Martin Goiak 2 urte beteko ditu ekainaren 17an. Zorionak amaxi, osaba Luis eta la. Muxu handi bat.



Ixaso Estanga Amundarain leiztarrak 14 urte bete ditu ekainaren 11n. Zorionak zure lagunaren partetik.



Oihana Nieto Caballero aresoarrak 14 urte bete ditu ekainaren 9an. Zorionak Leiztako lagunaren partetik.



Iratxe Esparza Chuecak ekainaren 20an 6 urte beteko ditu. Zorionak Fermina, Luzio, Eneko eta gurasoen partetik.



Igantzioko Ane Saintz-ek 9 urte beteko ditu ekainaren 18an. Zorionak eta aunitz urtez Mokorda. Ezkerdeneako familiaren partetik.



Naiara Apeztegia Iturria doneztebarrak ekainaren 25ean 8 urte beteko ditu. Zorionak aita, ama, amaxi eta Xabieren partetik.



Unai Iparragirre beratarrek ekainaren 20an urtea beteko du. Urte askuan zure lehengusuen partetik, Gurutze, Asier eta Hegoa.



Mirari Maiz aranztarrak 15 urte bete ditu ekainaren 10ean. Aunitz urtez eta muxu bat zure kuadrila guziaren partetik.



Nagore Mardariagak 4 urte beteko ditu ekainaren 20an. Zorionak Arantzako ataxi-amaxi, osabizeba eta lehengusuen partetik.



Aitziber Goñi leiztarrak ekainaren 22an beteko ditu urteak. Zorionak bere familia guziaren partetik.



Amalur NARBARTE Eskudero goizuetarrak maiatzaren 1ean 5 urte bete ditu. Zorionak etxeko-en partetik.



Bianditz NARBARTE Eskudero ekainaren 16an 9 urte bete ditu. Zorionak etxeko-en partetik.



Jugatx Telletxea Alberdi zorionak uztailearen 6an urteak beteko dituelako. Muxu handi bat. Luis, Josune eta Aitorxo.



Pantxito Iparragirre zorionak uztailearen 6an urteak beteko dituelako. Muxu handi bat. Luis, Josune eta Aitorxo.



Ibai Gil leiztarrak 4 urte bete ditu ekainaren 12an. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.

Norbait zoriondu nahi baduzu bidali bere argazkia, testua eta 35 pezetako 15 seilo TTIPI-TTAPAKO helbidera.

ARGAZKI DENDAK



FOTO ZALDUJA
 DONEZTEBE • ELIZONDO
 Tfnoak.: 948 58 04 91
 948 45 03 64

▶ %10 merkeago
 errebelatu eta
 artikuluetan

KIROLAK



**IPARLA
 KIROLAK**

Santiago, 51
 ELIZONDO
 Tfnoa.: 948 58 05 85

▶ %8 merkeago
 artikuluz guzietan

ARROPAK



edurne
 UMEENDAKO ARROPA

Aitzate, 34 • BERA
 Tfnoa.: 948 63 06 06

▶ %10 merkeago
 5.000 Ptatik goitiko
 erosketetan

KATTALINGORRI
 ARROPA DENDA

Santiago • ELIZONDO
 Tfnoa.: 948 58 06 93

▶ %10 merkeago
 artikuluz guzietan



TTIPI TXARTELA arekin
 beti irabazten da

Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gehiago
 irabaziko duzu.

Deskontuak, zozketak, opariak...

ESKATU ZUREA

948 63 11 88



Bi lagunendako afaria
TTIPI TXARTELA dutenendako

Etxalarko Bentak bi lagunendako afaria ematen du
 TTIPI TXARTELA dutenen artean
 zozketatzeko.



Etxalarko Bentan
**IGERILEKU
 KLIMATIZATUA**
 Hemendik aitzinera
 IDEKIA
 MUNDU
 GUZIARENDAKO

2 lagunendako afaria

zozketatuko da TTIPI TXARTELA dutenen artean.

Zozketan parte hartzeko, deitu ekainaren 24a baino lehen 948 63 11 88ra.

MEKANIKA

**MENDAUR
 MOTOR**

MEKANIKA • TXAPA
 ELEKTRIZITATEA • GARBIKETA
AUTO SALMENTA

Leitzako bidea
 DONEZTEBE
 Tfnoa.: 948 45 03 33

▶ % 10 merkeago
 neumatikoetan

**ZALAIN
 MOTOR**

KONPONKETA ETA
SALMENTA

Ubela industrialdea • BERA
 Tfnoa.: 948 63 11 57
 608 77 80 23

▶ % 5 merkeago
 errekanbioetan

ESTETIKA



Amezitia • DONEZTEBE
 Tfnoa.: 948 45 01 63

▶ %10 merkeago opari
 artikuluetan eta
 %5 kosmetikan

*Besta
Zoriontsuak*



GANI NAFARROAKO AURREZKI KUTXA